

## Edergarri erretorikoak Axularren *Gero* liburuan

PATXI SALABERRI MUÑOA

**M**aiz asko adierazi izan den legez, berbaldiaren “ornatu” delakoa pentsamendu klasikotik iritsi zaigun doktrina erretoriko eta poetikoan balio eta transzendentzia gehien dituzten kontzeptuetako bat da (1). Haren bitartez eman ohi zitzaion berbaldiari zegokion (“egokia” zen, esan nahi baita) forma, bai prosa artistikoan eta bai bestelakoan. Jakina, “bestelako” prosa horren bidez helburu gisa irakurlearen barnea eta sentimentuak hunkitu eta jokamoldeak aldaraztea zuenak bereziki jakin behar zuen *tekne* erretorikoak eskainitako baliabideak erabiltzen.

Ildo horretatik, XVI-XVII. mendeetan erretorika eklesiastikoaz ziharduten liburu guztietan etengabe azpimarratuko zen predikariek baliabide estilistikoak ezagutzeko zuten premia. Baliabide horien erabilpen zuzenaz, sermoiak -eta idatz zitezkeen liburuak ere, noski-egokiago moldatu ahal izango ziren, haien iturri ziren testu sakratuak hobeto interpretatu ahal izango zituzten eta, horren guztiaren ondorioz, “prediku”-an planteatutako helburuak errazago lortuko.

Ezaguna da baliabideen artean nolabaiteko mailakatze edo jerarkizazioak egin ohi zirela, betiere *aptum* delakoaren eskakizunak gordez. Edonola ere, bitarteko erretoriko gomendagarrienen artean aurkakotasunaz baliatzen zen hizkuntza azaltzen zen eta, gaiaren eta entzule-irakurle motaren arabera, elementu metaforikoaren erabilpen neurtua. Halaber, erretorikaren edergarri klasikoek aholkatuko dira beti ohiko prezeptiba liburuetan, haien guztien erreferentzia egokienak Eskritura Sainduetan eta Elizako Gurasoen obretan zeudela adieraziz. Horiekin batera, aszetikaren arlo berezian biziki gomendatzen zen irudien esparrua egokiro lantzea, exenpluak eta konparazioak ere berbaldiaren edergarritzat hartzen zirelarik.

Espero zitezkeen bezala, *Gero*-ren ornatuaren ezaugarri nagusiak ere liburuaren izaera aszetikoak berak bideratuko zituen oro har. Jakina, aszetikako ohiko liburuaren ornatua -eta hau ere ez da ustegabeko bat-“egokitua” azalduko da urdazubiarrarenean, betiere hark *aptum* edo egokitasun bertute erretorikoa ulertzen zuenaren arabera.

\*Euskal Herriko  
Unibertsitatea

(1) Mayoral, J. A., 1994, *Figuras retóricas*, Madrid, Síntesis, 24 or.

Guztiarekin, Axularren egitekoan *ornatus facilis* delakoa nabarmenduko da eta ez bestelakorik. Ornatu zailaren zaleek tropeoen erabilera landua egiten duten bitartean (2), *facilis* delakoa koloreetan oinarritzen da nagusiki, hots, irudietan, bai hitzezkoetan nola pentsamenduzkoetan. Ildo horretatik, argi dago Axularrek espero duen irakurle motak eta egilearen xede pastoral-pragmatiko zuzenak ahalbidetutako ezaugarriak ez direla inolaz ere metafora landuaren arlokoak izango. *Gero*-n aurki daitezkeen metaforak-ezen ez hizkuntza metaforikoa, ez baita horren aztarnarik- Eskritura sakratukoak, aipamenetakoak edota, gehienik ere, berauen eraginagatik sortuak izango dira, ez urdazubiarrak besterik gabe asmatuak (3). Eta edozein modutan ere, elipsiak gora-behera, konparazioetatik eta haien eskemetatik oso hurbil daude beti horrelako tropeak:

“Thiztari handiak dira begiak” (*Gero* (4), 392 or.)

“Nigar hek, arrosak dira elhorrien artean” (501 or.)

Izan ere, Axularrenak (ez besterenetatik hartuak, alegia) izan daitezkeen testu eta testuen arteko trantsizio-pasarteak oso hizkuntza pragmatiko eta arruntean idatzirik daude, ikusmiran bide zuzen irakurleak inolako ahalagin berezirik egiteko beharrik izan ez zezan.

Komunikazio-konpentsazioaren lege idatzigabekoaren arabera nonbait, hizkuntza metaforikoaren falta hori konparazioen bidezko hizkuntzarekin asetzen da. Era horretan, nabarmena da konparazioa izango dela Axularrek etengabe erabiliko duen baliabidea.

Baina Axularrek erretorikak eskaintzen dituen baliabide askotatik hartuko duen arren, badira eskema batzuk beste batzuk baino modu ageriagoan agertuko direnak -testuaren xede-izaerak behartuta inondik ere-, guztien konfluentziatik nolabaiteko *egitura erretoriko* bereziak sortuko direlarik (5).

*Gero*-ren prosaren lerro elokutiboak definitzeko baliabide azpimarragarriena aipatzekotan, “errepikapenaren printzipioa” nabarmenduko genuke ezaugarri gisa, haren aldaki guztiakin: paralelismoa, similikadentzia, etab. Era berean, elementu guztiak

(2) Kulteranoek erakutsiko duten eredu barrokoa, esaterako, *delectare* asmoaz garatu diskurtsoaren baliabideen gainean eraturik aurkitzen da hein handi batean: metaforak, alegoriak, ...

(3) Eta metaforei buruz dioguna beste tropeei (metonimia, sinekdokea, etab.) ere aplikatu lekieke, normalean hizkuntza arruntekoak, aipamenetatik zuzenean itzuliak edo, bestela, arlo izpiritualetik isuritakoak baitira. Dena den, badu Axularrek tropo propiorik ere; esate baterako, horietako bat dirudi ironia kutsua isurtzen duen formulazio sinestesiko honek: “Zeren hala ibiltzeak eztu usain ona” (412 or.).

(4) Aipamenak gaurko grafiara aldatuak emango diren arren, orrialde zenbakiak Euskaltzaindiak argitaratutako lehen edizioaren faksimilari jarraituz eskainiko dira, hots, Axular, *Guero*, Bordele, 1643 (Bilbo, Euskaltzaindia, 1988).

(5) “Sólo podremos hablar de estructuras especiales [...] cuando se da una cierta regularidad convencionalmente determinada y, por lo tanto, no casual” (Dijk, T. A. van, 1983, *La ciencia del texto. Un enfoque interdisciplinario*, Barcelona, Paidós, 130 or.).

integratzen saiatuko bagina, ondorio gisa ahozkotasunarekin zerikusia duten edergarriak lirateke nagusi, liburuaren konformazio dialogikoa barne. Izan ere, neurri handi batean bederen, sermocinatio luze baten parekoa dirudi Axularren obrak, irakurleari zuzenean mintzatzen zaion liburuak, irakurlearen baitan eragin erabakiorra izan nahi baitu liburuak.

Elkarrizketa luze moduko horretan baliabide fonon-eritmiko errepikakorrak izango dira gailenduko diren elementuak, hortaz. Bestelako baliabideak irudi marko hori osatzera agertuko dira.

Hipotesi definigarri gisakorik aurreratuko bagenu, beraz, erretorika klasikoaren ildoan zeharo txertaturiko erretorika eklesiastikokoa den obra baten aurrean gaudela baieztu beharko genuke. Alderdi askotatik begiraturik, San Agustinen eskemetatik xurgatu (6) eta Luis Gránada-koarenganaino iristen den hari leun-ezkutuarekin ehundutako estiloa lirudike Axularrenak, zalantzarik gabe.

Baliabide eta edergarri guztien taxonomia hutsen sareetan erortzeko asmorik ez dugun arren, gorago aipatu eskema eta egitura nagusiek *Gero* liburuaren prosan zertan dautzan argitzen ahaleginduko gara ondoko orrialdeotan, betiere, erantsi beharrik ez dago, erretorika klasiko eta eklesiastikoaren teorien lekukotasunaz baliatuz.

## 1.-AFEKTUETAN ERAGITEKO BALIABIDEAK

Ezaguna da Axular bezalako predikari baten eginkizun nagusia ez dela mezu baten erakuste hutsera mugatzen, entzule-irakurleak mugiaraztea baita helburua, hau da, bekatariaren barnean hunkitu eta bertuterantz abiaraztea hain zuzen. Izan ere, eta begi bistakoa denez, Barrokoan zehar etengabe eta nabarmenkiro agertuko den “Pertsuasioa-mugiaraztea” bikote ezaugarri hau (7) areagoturik azaldu behar zen ezinbestez esparru erlijiosoan.

Horretarako, afektuak pizteko helburuarekin alegia, teknika bezala planifikatu ohi zen oratoria sakratuaren esparrua, baliabideak mota ezberdinetakoak izan zitezkeelarik.

Batzuetan besterenetik zuzenean jasoak edo haien eredu gisara burutuak eta besteetan bere-bereak izanik, Axularrek ere ez du alboratuko aszetikan hain garrantzitsua den atal hau eta etengabe isladatuko du hori bere prosan.

Axularren obran lantzen diren afektuak, tematikoki garaiko aszetikan ohi bezala, bildurraren arlokoak izango dira nagusiki: Jainkoaren bildurra sortzeko, infernuko penen bildurra izateko eta bekatuen aurkako gorrotoa pizteko, alegia. Teknikoki ere ohiko bide erretorikoak agertuko dira *Gero*-n.

(6) “San Agustín emplea principalmente tres de los recursos que recomendaba Cicerón (*De oratore*, III, 173-198; *Orator*, 164-236): el *isocolon* (enlace de dos o más miembros de la oración de longitud igual), el *antitheton* (unión de dos miembros que contienen ideas contrarias), y el *homoioteleuton* (isocolon con rima en el final del colon)” (Curtius, Ernst R., 1948: 1976, *Literatura europea y Edad Media latina*, 1 eta 2, Madrid, F.C.E., 115 or.).

(7) “La eficacia en afectar, esto es, en despertar y mover los afectos, es la gran razón del Barroco” (Maravall, J. A., 1983, *La cultura del Barroco. Análisis de una estructura histórica*, 3. ed., Barcelona, Ariel, 171 or.).

Bestalde, afektu positiboak edo izan daitezkeenak, Jainkoarenganako maitasuna esaterako, ia ez dira planteatu ere egiten. Baina hau guztiau, gorago esan dugun bezala, liburuaren izaera aszetikoaren pragmatismoarekin lotua dago, bizioak errotik atera eta, haien orde, bertuteak lantzeko planteamenduarekin lotua hain zuzen.

### 1.1.- HUNKIPENERAKO BALIABIDE NAGUSIAK

Oro har, teknika aplifikatzailea izango da erretore eta predikari katolikoek gizakien baitara iristeko eta hunkitzeko erabilitako teknika garrantzitsuenetarikoa bat. Eta erretorika klasikoa horretaz ongi jabetua bazegoen ere, oratoria sakratuan ihardungo dutenek modu berezian azpimarratuko dute errekurtsio honen balioa afektuetan eragiteko eta bekataria bekatutik ilkiarazi eta bertutera hurbilazteko:

“[...] es propio de la amplificación [...] **inducir también a la voluntad al amor, ó al odio, ó á otro cualquier afecto**” (Granada(8), 530b or; gurea da letrakera lodia).

Axularren obrak, ezagun den bezala, aplifikazioa du oinarrietako bat, konparazioz, irudiz eta beste zenbait errekurtsioz baliatzen zen aplifikazio teknika hain zuzen. Baina horrezaz gain, ohiko ziren baliabideak ere prosaratuko ditu urdazubiarrak bere liburuan. Horietatik guztietatik, alabaina, badira batzuk erraztasun eta maiztasun gehiagorekin erabiltzen direnak eta *Gero*-ri ere izaera berezia edo ematen diotenak. Nabarmenetarikoa agian taxuketa dialogiko bezala ezagutzen dena.

Oro har, “pseudodiskurtsio zuzen” gisara edo(9) hartua izan den egitura honek estu-estuan harturik estilistikaren esparrua gaingidutiko balu ere, honelako obretan baliabide estilistikotzat hartu behar da zalantzarik gabe.

Elkarrizketa antzeko taxuketa horren bitartez, irakurlearekiko hurbiltasuna bilatzen da; finean, liburua edo berbaldia eguneroko bizitza arruntean zuzenean ukitzen dituen zerbait bezala sentitzea baita helburua, irakurlearen implikazioa edo, bestela nahi bada, haren “testuraketa” (10). Horren atzean oso asmo pragmatiko zehatza ereinda dute predikari-idazle (edo, nahi bada, idazle predikari) guztiek, irakurlearen “konbertsioa”.

(8) Granada, Luis de, *Retórica Eclesiástica o de la manera de predicar*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, III, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE XI), 1945, 488-642 or.

(9) Perelman, Ch. - Olbrechts-Tyteca, L., 1989, *Tratado de la argumentación*, Madrid, Gredos, 285 or.

(10) Esan gabe doa, teknika hau bat letorke Barrokoaren kulturaren izpirituarekin, izan ere, “[...] frente a su destinatario, la cultura barroca se propone moverlo [...] Uno de los recursos de los que se vale [...] consiste en introducir o implicar y, en cierto modo, hacer partícipe de la obra al mismo espectador. Con ello se consigue algo así como hacerle cómplice de la misma” (Maravall 1983, 169 or.).

Testuaren taxuketa dialogikoa, beraz, irakurlearengana iristeko bide zuzenenetariko bat suertatuko da eta, ondorioz, afektuen esparrua hunkitzeko eta mugiarazteko biderik egokiena. Azpimarratu beharrik ez dago: oratoria sakratuak sistematikoki erabiltzen duen baliabide erretorikoa baino ez da hau, balio didaktiko handiko baliabidea alegia.

Ildo horretatik, baliabide erabiliena irudimenezko arrazamendu edo *sermocinatio* arloko aldakiak izango dira nagusiki, batik bat *dialogismo* bezala ezagutzen dena, hots, elkarrizketa baten fikzioa sortarazten duena, nahiz eta bakarrikzeta antzera ere taxu daitekeen. Argi uzten du Granadak irudi honen balioa: "no sé yo si hay cosa que mas pertenezca al oficio del predicador, que esta" (Granada, *Retórica*, 544a or.).

Jakina, elkarrizketa moduko tratamendu hau era nahiko sistematikoan planteatuko da garaiko aszetika liburu gehienetan. Eta adierazi beharrik ez dago, Axularren *Gero*-n ere maiz asko erabiliko da, kapitulu gehienetan hain zuzen, batik bat estiloa bortitzago bilakatzen denean, galdetegiarene forma hartzen denean, irakurlearenganako eraso izpirituala lortu nahi denean. Horrelakoetan, hausnarketa metodo bat da autoreak planteatu galdetegi zuzenarena, ordurarte tratatutakoaz irakurleari zuzen-zuzen galdetzearena.

Alabaina, *Gero*-ri gagozkiolarik, erantsi behar da ez garela eredu dialogiko huts, puru eta garbiaz mintzaten ari, hartan oinarritutako formulazio zabal batez baizik, testuari zenbaitetan elkarrizketa kutsua isurtzen dionaz hain zuzen. Eredu horren bitartez, liburuan esandakoa irakurlearen errealitatera hurbiltzeko ahalegina erakusten du egileak. Orobat, xedetzat izan ohi du mezu-hartzailea gaiaren harian sartzea eta zuzenean inplikatzea. Eta hori guztia, ez ahalegin idatzi huts gisara, elkarrizketaren dinamikan oinarritua bailitzen baizik.

Baliabidea, beraz, igorle-hartzaile bikotea behar duen elkarrizketa edota galdetegi moduan planteatutako pasarteetan atzemango da, aditzaren erabilera bera ere bat-batean egokiturik agertuko delarik, hirugarren pertsonatik pluraleko lehenera edota singularreko lehen edo bigarreneara.

Oro har, esan genezake Axularren liburuaren zati asko direla horrela taxututa daudenak, lehenengo begiradan ematen duena baino askozaz pasarte luzeago osatuko luketenak alegia. Betiere, pasarte hauek kapituluetan tartekaturik agertuko dira: zenbaitetan argumentazioan, baina bereziki perorazioan. Axularren liburuak dituen helburuak (konbertsioa, bertuteak landu, bekatuak alboratu,...) eta atalak kontutuan hartu arren, nekez bereiz liteke multzo nagusirik: alde batetik, eredu argumentatibo-narratiboari dagokiona eta, bestetik, eredu dialogikoa. Tartekaturik egotean zaildu egiten da bereizketa, baina, edozein modutan ere, pasarte bakoitzak bere ezaugarriak izango ditu, batik bat aditzari eta elementu sintaktikoei dagokienez.

Liburuan barrena tartekaturik agertzen den dialogismoaren irudi honek beste guztiek baino garrantzi gehiago izango du liburuaren beraren egituraketan parte hartzen duelako, eta ez delako irudi huts solte bat bezala geratzen. Gogoan hartu beharrekoa da dialogismoaren garrantzia pentsamenduzko irudien artean, irudi horretaz baliatuz egileak elkarrizketa baten fikzioa sortzen baitu. Era berean, irakurlea (edota,

dagokionean, entzulea) inplikatuago sentituko da irakurtzen (edo entzuten) ari den obra horretan.

Konfigurazio dialogikoaren erabilerari dagokionez, zinez baieztatu daitezke Axularrek hein handi batean obraren atari edo exordio moduko ataletan prefiguratu duela gero liburuan barrena egongo duena.

Etxauegi egindako eskaintzan, esaterako, modu dialogikoa da atal guztia konfiguratu duena. Etxauegi bizirik balego bezala zuzenduko zaio eta harekiko elkarrizketa gisa (bakarrizketa, praktikan) eratu du eskaintza guztia, lehenengo hitzetatik beretik (“Neure Jaun maitea, joan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki...” [3 or.]) azkenetaraino (“[...] eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derazkitzudala. Iainkoak hala nahi duela” [11 or.]).

Baina *sermocinatio* baliabideaz gainera, testu honetan irakurlearengana iristeko *evidentia* arloko baliabideak agertuko dira, horrela testuaren hunkigarritasuna *Gero* guztian ematen den handiena gertatuko delarik.

Ezaguna da ebidentzia izeneko baliabidea oso eraginkorra izan ohi dela beti pertsonen deskribapenerako eta haien jokamoldeenarako (karakterizazioa). Eskaintza honetan, laudorioak agertu nahi diren neurrian, Etxauegiaren karakterizazioak alde onak baino ez ditu irakutsiko, bestiere eredugarri izan diren besteren jokamolde eta bertuteen itzalpean.

Hizkuntzaren ikuspuntutik, irakurlearekiko gertutasun afektiboa nagusiki orainaldiaren erabilerak bideratuko du hemen. Orainaldia izango da autorearen berbaldia enmarkatuko duena eta heriotzak eramana izan den pertsonaia joan berria bailitzen kontsideraraziko duena, *translatio temporum* delakoa ahalbidetuz. Elementu dialogikoak erantsiko dio gero honako honi falta dakiokena.

Guztiarekin ere, ezin ahaz daitezke elementu topografikoak berak duen garrantzia, izan ere afektiboki irakurleari hurbiltasun geografikoa erakusten dion elementu horren erabilpena ere ez baita faltako testu honetan (11).

Afektiboki askoz ere neutroagoa den “Irakurtzaileari” atala gertatutakoaren narrazio moduan planteatuta dago, autorearen kontsiderazioak (neurri batean, bederen, bakarrizketaren parekoak edota irakurleari egindako aitorten gisakoak) tartekatzen direlarik: “nahi nituzkeien...” (16 or.), “hartu dut gogo...” (16 or.), “badakit...” (16 or., 17 or.), “eztut [...] egiten” (19 or.), etab. Irakurlearekiko fikziozko elkarrizketa modukoak lirarteke hari zuzenean igorritakoak, batik bat 18. orrialdetik aurrera: “eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez othoi hartatik arbuja[...] Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera[...]” esaldietatik azken erreguetaraino (“hari eskerrak errenda iatzotzu, eta nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi” [20 or.]).

(11) Oso zehatzak eta gertuak egiten dira, esate baterako, “mendi Pirinioetan, Alduideko hegoaldean” (6 or.), “Nafarroa beheko parte hetan [...]” (6 or.), “ioan zen Donapalaia, non baitzen orduan Nafarroako Parlameta [...]” (6 or.), “Baionako Ipizpikuzinenean [...]” (7 or.), “Nafarroako hirur estatuak bildurik, ioan zinen Gorthera [...]” (8 or.), etab.

Liburuan barrena, baliabide dialogikoak une zehatzak izango ditu agertzeko eta eman nahi zaion funtzioa betetzeko. Jakina, argumentazioan baino intentsitate handiagorekin agertuko da perorazio zatietan; argumentazioan zehar azaltzen direnak gehiago izan daitezke exenpluetakoak (hots, exenpluetan erakusten diren pasarten barneko elkarrizketak) eta prosopopeiaren eremukoak (12).

Edozein modutan, fenomeno dialogiko konkrituak aurkitu ahal izango dira liburuaren corpus delakoan ere, hain zuzen pertsona gramatikalen agerpenarekin lotura ezin estuago duena. Ezaugarri bezala, egituratze dialogiko horrek etengabe erabiliko ditu ni-gu-zu izenordainak irakurlearen inplikazioa areagotzeko.

## 12.- BESTELAKO BALIABIDE ERRETORIKO HUNKIGARRIAK

Elementu dialogikoarekin batera, garrantzi handia hartuko du argumentazio aszetiko-erlijiosoan exenpluekin lotura estua duten irudien atalak. Besteak beste, prosopopeiari dagozkion baliabideak ditugu ikusmiran.

Prosopopeiaren arabera (13), “no hablamos á cosas mudas é inanimadas, sino que á ellas mismas les atribuimos palabras y afectos humanos” (Granada, Retórica, 551b or.). Horretan oinarriturik, maiz asko idazle eta predikariek munduko creaturei eskaintzen zieten hitza, berriro ere elkarrizketaren egituran sartzen zirelarik. Axular horietariko bat izango da.

Erabilpenari dagokionez, honela mintzatzen ziren erretoreak: “advértase mucho que el usar esta figura sea pocas veces, y mírese muy mirado la persona que se induce, para que se le den sus palabras a su modo; que, si no se acierta en la propiedad, mejor es dejarlo” (Terrones del Caño, Instrucción..., 140 or.). Izan ere, testuiguru teologiko-doktrinaletan arrisku egoerak sor zitezkeen oharkabea eta, lekukoaren arabera, sortu egiten ziren maiztxo, besteren artean, predikaria Kristoren hitzak asmatzen hasten denean: amarekin dagoenean mintzatzen dena, etab. Horrelakoetan, prosopopeia erabiltzeko aholkua garbia zen: “en pocas palabra, muy propias, muy medidas, devotas y graves, y que salgan de corazón caliente; o callar” (*idem*, 141 or.).

(12) Bizitzarik ez duten elementuak ematen zaiei pertsonifikazioa maiztxo agertzen da Gero-n. Estilo zuzeneko hizketa motza bezain polita da, esate baterako, eguzki-zuhaitzek alferrari hitz egiten diotenekoa (34-35 or.).

(13) Inoiz, orduko erretoreen arabera, “prosopopeya es cuando se inducen otras personas como que ellas hablan en el sermón” (Terrones del Caño, Fco., Instrucción de Predicadores, Granada, 1617; orain: Olmedo (ed.) 1960, Madrid, Espasa-Calpe, 140 or.). Ez da ohikoena zentzu hau.

Ez da *Gero*-n maizegi agertzen baliabide hau, eta agertzen denean ere ezin har daiteke guztietan Axularrenak bereak bailiren, irudiok modu beretsuan agertuak direlako beste idazle zenbaiten testuetan, eta ez bakarrik aipamen zuzenetatik jasoak direnetan.

Alabaina, interesgarria da Axularrek dagiena gogoratzea. Ildo horretatik, nabarmenetakoa da seigarren kapituluan eraikitzen duen propopeia anitza “munduko gauza guztiek kondenatzen dute alferra” (34 or.) dioenean. Baiezpenaren ondoren, elementu desberdinen pertsonifikazioa agertuko zaigu, eredu gisa edo izandako Granadakoaren testutik modu ederrean aldentzen delarik. Izan ere, azpimarragarria da propopeia horietan gauzatzen diren mintzaldietako hizkuntz-sena (besteak beste, hikako formarekin lotua dena). Hona hemen horietako bi:

Iguzkiak arrazoiñekin erran ahal diazaio beranduraino ohean datzanari: «Zerk aratza hor alfer-naghia? Nik atzo, hik baiño bide gehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hi baiño goizago iaiki nauk» (34 or.)

Zuhaitzek ere erral ahal dezakete: «Eztakusazue nola gu ezkauden behin ere geldirik eta ez alferri? Nola hazten, handitzen, loratzen eta geure demboretan eta sasoiñetan fruituz bethatzen garen?» (34-35 or.).

*Apostrofe* bezala ezagutzen den baliabideak entzuleria berbaldian murgilarazteko elementu gramatikalak erabiltzen ditu, agintera eta bokatiboa batik bat. Alabaina bokatiboa ez da izango Axularrek erabiliko duen forma; aginterak bideratzen du normalean testua eta bokatiboa edo behar zen tokian, aginterak betetzen du bokatiboaren hutsunea.

Erabilerari dagokionez, apostrofea oso era neurtuan baliatzea aholkatzen zen erretorika eklesiastikoan (14). Ildo horretatik, bakanka baino ez da azalduko apostrofea alokuzio formapean, eta agertzen denean, testuari nolabaiteko aktualizazioa edo eskaintzeko erabiliko da. Alokuzioaren eremukoak genituzke “Zu izan zara, Etxauz, mendi Pirinioetan [...] (6 or.), etab.

Testuaren barne logikagatik beragatik esan daiteke ez dagoela hemen apostrofearen arloko zinegiterik. Bestalde, testuaren izaerak berak eramango du inbokaziorik eta exekraziorik ez erabiltzera.

Obsekrazio delakoa, berriz, oso egokia zen predikuetan: “despues de probado y amplificado el asunto cae muy bien la obsecracion, por la cual pedimos algo con ahinco á los oyentes” (Granada, *Retórica...*, 552a or.). Ez zen horrenbeste, irudiz, testu idatzietan, gutxiago agertuko baita XVII. mendeko literaturan, batik bat literatura kutsu eskatologiko-dramatikoa galtzen hasten denean. Axularrek ere gutxi du obsekrazio mailan, agian ezagunena “irakurtzaileari” zuzendutako atalaren bukaerakoa delarik: “[...] nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi” (20 or.).

(14) “Es menester no usar della, sino cuando el mismo sentimiento del coraçon la arroja por los labios” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 139)



Orobat, aginduen arloko adibidez beteta daude berbaldiaren perorazio gehienak, gorago kapituluaren barne egitura azaltzean ikusi den bezala. Adibideak normalean perpaus laburrez osatuak agertzen dira, mezua ezin sarkorrago bihurtzen delarik. Esan beharrik ez da, aditzak agintera forma hartu ohi du:

Zaren prestu, euzu konzientzia ona. Zaren konzientzia onarekin, ez etsairen, ez inkontruren, ez fortunaren, eta ez munduan den bertze perilen ere, etzara beldur izanen (449 or.)

Nolanahi ere den, afektuen mugiarazteko irudirik egokienak eta eredu dialogikoarekin ongien ezkontzen direnak esklamazioak eta galderak direla esan daiteke. Hauek biak izan dira literatura aszetiko-erlijiosoak maizen erabili dituenak eta irakurleak hunkitzera iristeko dramatismoa lortzen hobekien laguntzen dutenak. Horrexegatik, hain zuzen, erabili izan dira bi-biak berbaldi guztien bukaera aldean, "konbertsioa" erdiesteko azken hitzak jaurtikitzen direnean.

Esklamazioa, oro har, sutsua bada ere, kutsu bortitz hori areagotu egiten da jarraian bat baino gehiago eransten direnean: "es vehementissima aquella que consta de muchas exclamaciones" (Granada, *Retórica*, 551a or.).

Ez da eskasa Axular horrelakoetan:

Itsutasunaren itsua! erhokeriaren erhoa! uste baituzu ezen gero, hemendik urthe baten edo biaren buruan, orai baiño bekhatu gehiago duzunean, hosinean barrenago zaudenean, eta orai baiño flakoago zarenean, aisekiago, eta errazkiago ilkitko zarela. Iltki bekizu erhokeria hori burutik! egotz ezazu zeure gogotik! eta sinhets ezazu geroago gaitzago izanen dela (86 or.).

Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillariterik izanen eztuena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko! (599 or.).

*Figurae sententiae* direlakoan artean, maizago darabil Axularrek *repetitio interrogationum* edo galderak bata bestearen ondoan jarririk. Galderak, Granadakoak zioen bezala, "tiene tambien fuerza y acrimonia, y es muy poderosa, no solo para mover los afectos, sino tambien para variar la oracion. Y es mas vehemente y elegante, cuando en una misma serie de oracion fluyen muchos interrogantes distinguidos con ciertos incisos ó miembros" (Granada, *Retórica*, 552a or.).

Bestetan baino gehiago, horretan emango du Axularrek pasarte luze asko. Hona hemen, *Gero*-n garrantzi handia duen irudi honen zenbait adibide adierazgarri:

Batek egin eta batek desegin, zer probetxu, trailla baizen? Bada halaber zer probetxu da, behin iaikitzeaz, baldin berriz erortzen bada, eta eroririk dagoela eta datzala, gelditzen bada? Zer probetxu da bide luzeari lotzeaz, gogo duen lekhura heltzen ezpada? Zer probetxu, untxiak betherik eta kargaturik bela ongi egiteaz, baldin portura baiño lehen edo portuan galtzen bada? Zer probetxu etxearen hasteaz, akhabatzen ezpada? (466 or.)

Ordea zer da haur? Nolatan galdu da arima haur? Etzuen Iainkoak hunen salbatzeagatik odol isuri, eta heriotze errezibitu? Eta etzituen halaber eritzen zeneko medizina, eta erremedioak, Sakramendu sailduak ordenatu? Eta etzeratzun zuri ere, Aingiru saildua, begiratzeko kargua eman? Nolatan bada galdu da? Nolatan kondenatu da? (561-562 or.)

Galderen jarraikako errepikapenak, ikus daitekeenez, mezua dramatismoaren azken punturaino eramatea izango du helburu (ikus, esaterako, *Gero* 599-600 or., Luis Granadakoaren obraren kalkoa den hartan hain zuzen). Zenbaitetan, dena den, diskurtsoaren bortiztasuna galderak eta esklamazio edo harridurazko esaldiak tartekatzen lortuko da:

Pontu hartan ethortzen zaitza arima tristeari gogora egundaiño egin dituen falta guztiak: eta hanbat eta hain handiak direla ikhusirik, bihotza hersten zaika, hiltzen zaika: eta iartzen da bere buruarekin gogoetan, erraiten duela: Zer izanen da orai nitzaz? Zer bide hartuko othe dut? Salbatuko othe naiz? Pontuaren latza. Pausuaren gaitza; egitekoaren handia: hersturaren hertsia, eta izigarria. Zer eginen du orduan arima izi hark? Nor deituko du bere faboretan? Nor eskua emanen dio? Nor helduko? Nor lagunduko zaika? Nor bada? (558-559 or.)

Zabaldu nahi zuten mezuaren arrakasta lortzeko bestelako irudiak ere erabiltzen ziren oratoria sakratuan, hala nola galderak eta erantzunak jarraian barnehartzen dituen *subjectio* arlokoak:

Zer diozu Kain? Noren zara beldur? Nork hillen zaitu? Ez Adanek, ez Ebak. Zeren horiek zure aita-amak dira, eta oraiño ezta munduan bertzerik. Noren zara bada beldur?

Adanek behatu egin zuenean, eta sentitu Iainkoak deitu nahi zuela, ihes egin zuen, gorde zen. Eta zergatik gorde zen? Othe ziakien zer nahi zioen Iainkoak? Bai baziakien (dio San Agustinek). Eta nondik ziakien? (434 or.)

Deskribapenei dagokienez, Axularrek aurkezten dituenak situazionalak izango dira gehienbat (objektu konkretuenak nekez aurkitzen dira bertan, ohikoak baitira testuraten direnak (15)) eta zerikusi handia erakutsiko dute lortu nahi den efektu hunkigarriarekin. Infernuarekin lotutakoak (besteak beste, sufrimenduen zehaztasunen argazkia, infernuko hotza ala beroa arazoari buruzko dilema, etab.) izango dira irudi orokor eraginkorrenak. Edonola ere, irudi hauek exenpluen arloan gertatuko dira maizen.

(15) Horietako elementu konkretuak bilatu nahi izanez gero, orduko euskaldunentzat erabat ezezagunak ziren piramideen deskribapena (ikus 26 or.) bezalakoak izango genituzke nagusienak. Dena den, normalean ez da horrela gertatzen. Eleafanteak ere ezezagunak bide ziren eta egiten den deskribapen parentetikoa funtzional hutsa da, hots, testuaren beharrei begiratu: "Eleafantak (animalia handi bat baita)" (180 or.).

## 2.-EDERGARRI FONIKO- ERRITMIKOAK

Berbaldi suasorioak dituen berezko baliabide hunkigarriekin batera, prosaren eraketa formala bestelako baliabideekin ere osatzen dela azpimarratu behar da, prosari eta prosa mota horren xedeei beste modu batez izango ez luketen ezaugarriak eskainiko dizkien baliabideekin hain zuzen.

Baliabide guztien artean, lehenik eta behin -obraren izaerak aginduta- testuari nabarmenki isurtzen zaion hunkigarritasun-premiaren areago-tzaileak agertzen badira ere, erritmikoki eta fonetikoki ere funtzionamendu berezia ekarriko diote prosa guztiari, eta, jakina, horrek izaera propioa obrari.

Mintzatu gara dagoeneko *Gero*-k berezko duen afektuen arloa nabarmentzeko Axularrek erabili bitartekoei buruz eta hauek prosari eskaintzen dizkieten ezaugarriez. Azal ditzagun orain alderdi fonerritmikoari legozkiokeenak.

Metodologikoki, urdazubiarrak erabiltzen dituen baliabide edo edergarri fonerritmikoen artean sailkapen franko egin badaitezke ere, horietako interesgarriena "errepikapen" printzipioan oinarritutakoa litzateke ziurrenik. Haren arabera, erraz asko egitura genitzake prosan azaltzen diren fenomeno nabarmenenak.

Alabaina, argitasunaren irizpidea eta proposatzen den ereduaren ahalmen analitiko-integratzailea hobetsiz (ik. Mayoral 1994, 36-37 or.), bestelakoa izango da hemen azalpenerako erabiliko dugun sailkapena. Izan ere, "las estructuras retóricas se basan [...] en estructuras gramaticales, por lo que resulta apropiado basar su sistemática en los diferentes niveles habituales como la fonología, la morfología, el léxico, la sintaxis y la semántica" (Dijk 1983, 128 or.). Hori dela eta, hizkuntz maila ezberdinen arabera eratuko da eredu hau, betiere ardatz gisa aipatu errepikapenaren printzipioa erakutsiko badu ere.

Hortaz, Axularrek darabiltzan baliabide edo edergarri fonerritmikoak irudi (16) multzo hauen inguruan sailkatuko dira: batetik, irudi sintaktikoak, bigarrenik irudi morfo-fonologikoak eta, azkenik, esparru semantikoko irudiak.

### 2.1.- PARALELISMOAK

Maiz asko ulertze arazoak sortu izan ditu hitz honek, besteak beste literatura espezializatua erretorika klasikoan ez bezalako definizioak hartuz joan delako azken urteotan. Nolanahi ere, gaur egun irudi isotaktikoen artean kokatzen den arren (17), terminologia arazoak ahalik gehien ekidin ahal izateko, *paralelismoa* ondoko definizio honen arabera erabiliko da hemen: "es la colocación «en paralelo» de sonidos, de palabras, de formas gramaticales, de estructuras sintácticas, de cadencias

(16) Gogoan hartu *Irudi* hitzak, gaurko analisi erretorikoen ildotik, edergarrien ohiko fenomeno guztiak hartuko dituela barnean, ohiko tropo eta irudi klasikoaren artean inolako bereizketa metodologikorik egin gabe.

(17) Batzuetan isokolonarekin identifikatuz, bestetan isokolonetik bereiztuz baina honen sinonimotzat eman den parisosiaren sinonimo gisa, etab.

rítmicas: de los componentes, en suma, de todos los niveles de la organización del discurso” (18).

Ondorioz, paralelismoen konfigurazioak isokolon eta homoioteleuton izeneko irudiak hartuko ditu barnean ezaugarri nagusi gisa. Edonola ere, ezin da ahaztu anaforak, epiforak eta bestek eskema paralelo horietaz baliatuz betetzen duten funtzioa eta, hortaz, paralelismoen esparruaren barnean kokatu behar direla irudi erretorikoez ihardutean.

Formalki, paralelismo egiturek, hau da, eskema berdintasuna edota antzekotasuna dutenek (“berdintasun” kontzeptuaren oinarritzko premia, alegia) gutxienez bi osagai edo atal dituzte, osagai horien arteko lotura elokutiboa errepikapen printzipioan oinarritzen delarik.

Ildo horretatik, eta funtzionalki paralelismoaren erabilerak mezuaren intentsifikazioa lortzea bilatzen badu ere, ikuspuntu estilistikotik parametro erritmiko bereziz tindatzen du prosa.

Hau guztia *Gero*-n atzematen da, zalantzarik gabe esan baitaiteke paralelismoa dela Axularren prosak estiloaren aldeko duen ezaugarriarik nabarmenena. Testuan barrena ikus daitekeenez, eurrez baino gehiago, etengabe darabilen formula da paralelismoen hau eta, normalean, antitesiarene inguruan eratua.

Erabilpenaz den bezainbatean, halere, Erdi Aroko “ecclesiastica consuetudo” delakoaren bidez ihardutea du gogoko Axularrek. Horrela, inoiz erritmo argumentatiboa bidera zezaketen ereduaren aurrean, berak erabateko egokitzapena egiten du, testuaren izaera zeharo aldatuz. Adibide bat genuke honako honetan:

Y así como el que se está ahogando en la mar, sumido ya debajo las aguas, sin hallar sobre qué hacer pié, tiende muchas veces las manos á todas partes en vano, porque todo lo que aprieta es agua líquida y deleznable que le burla y engaña, / así acaecerá allí á los malaventurados cuando estén ahogándose en aquel piélago de tantas miserias, agonizando y batallando siempre con la muerte, sin tener arrimo ni consuelo sobre que puedan estribar (Granada, *Memorial...* (19), 206b or.).

Axularrek honela eskainiko du pasarteak:

Itsas zabalean erortzen denak, badarabiltza zer baiti lothu nahiz eskuak, hersteintu: baiña alferrik. Zeren eztu linburtzen, eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten./ Hala gerthatzen zaie bada, ifernu zabal, hondar gabea, erortzen direnei ere. Eztute edireiten non oiña fintka; eztute edireiten zeri lot; eztute edireiten girthaiñik, esku-tokirik, sostengurik eta ez konsolatzeko biderik eta ez esperantzarik (*Gero*, 598 or.).

*Gero* liburuan barrena Axularrek erakutsiko duen ereduak honako honetan nagusitu den paralelismoaren teknikaren ildo beretik jarraituko duela baieztatu daiteke.

(18) Mortara Garavelli, B., 1991, *Manual de retórica*, Madrid, Ed. Cátedra, 233 or.

(19) Granada, Luis de, *Memorial de la Vida Cristiana*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, II, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE VIII), 1945, 203-411 or.

## 2.2.- ARLO SINTAKTIKOA

Arlo sintaktikoan isokolona erabilera handiko irudia da, bai literatura idatzian zein ahozko tradizioan, baina batik bat esparru erretorikoan eta, honen barruan, oratoria erlijiosoan bereziki. Zer esanik ez dago, beraz, Axularren kasuari dagokionez.

Isokolonaren definizioaren arabera, bi edo testu segmentu gehiagoren artean luzera eta egitura sintaktiko berdintasuna ulertu ohi da. Ikusten denez, bada, arlo sintaktikoko irudi baten aurrean gaude.

Honelako irudi batek ezinbesteko duen plurimenbrazio egituraz mintzatzean, eredu bi dira *Gero*-n beste guztiei nagusitzen zaizkienak: bi eta hiru atalekoak hain zuzen. Hortaz, bimenbrazioak eta trimenbrazioak izango dira Axularrek gehien erabiliko dituenak.

Atalbikoak, esaterako, formulazio ezberdinak hartuko dituzte, maiz asko eredu parataktikoetan zein asindetikoetan oinarriturik agertuko direlarik:

Hala bada Iainkoaren zerbitzuan ibili nahi dena ere lehenbizian horzki da,

zurrun da,  
hotz  
eta  
nagi da (490 or.)

Formulazio epiforikoa hartzen duten eredu hauezaz gain, bereziki azpimarratu nahi genuke egitura asindetikoetan Axularrek egin ohi dituen lotura anaforikoak, horrelakoak sarritan agertzen baitira obran barrena erritmoaren zentzazioa areagotuz:

“Orai hamar bekaturekin dihardukazu, gero ehunekin iharduko beharko duzu.

Orai urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hobeiena edo berrogeiena izanen duzu” (84 or.).

“Onek, on guztiak, gaixtoek gaitz guztiak.

Onak bethi ongui, gaixtoak bethi gaizki” (574 or.)

Bi ataleko isokolona erakusten duten egitura ez-narratibo parataktikoak gogoko ditu Axularrek antitesiak burutzeko:

“Iustizia min da, eta garratz, eta miserikordia gozo eta ezti” (137 or.)

Bestalde, gorago aipatu konparaziozko egitura sintaktikoaren araberrako isokolonak sarritan agertuko dira obran zehar:

“Eta nola bertze harrietarik baita prezaturik baiño frankoago, hala dela halaber kondenatuetarik ere salbatuetarik baiño gehiago” (142 or.)

“Nolako baita ehaiten den ehuna, eta oihala, halako izanen da oihalaren albenia, eta bazterra ere” (215 or.)

Bimenbrazioetan luzera guztietako perpausak aurki daitezke oro har. Edonola ere, egitura berdintasuna erabatekoa izan arren, atal bat bestea

baino luzeago gerta daiteke betiere konplexutasunaren arabera, hots, atal luzeak besteak ez dituen hainbat elementu barnehar ditzakeelako hain zuzen (erlatibozkoak, etab.):

Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinelan, eta begiraille bezala, iratzarririk, dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme (5-6 or.)

Edonola ere, bimenbrazioez gain, testuan ez da bestelako plurimenbraziorik ere faltako, Granadakoak zioen bezala, "tienen mas gracia cuando son de tres ó tambien de cuatro miembros" (Granada, *Retórica*, 598a). Horrelakoak elipsi kontestualez (*zeugma*-z, alegia) baliatzen dira maiz asko, aditzaren ezabaketaz batik bat:

Zen ederrena, egin zen itsusienik / bere gogarena gaizkienik / Onhetsiena, gaitzetsienik / etagorena beherenik (140 or.)

Zaharra ezin barur diteke./belhauniko orazinotan ezin dagoke./erromerian ezin dabilke./Finean zaharrak, bere zahartasuneko eritasunekin eta arrazadurekin, penitenziazko obrarik ezin daidike (180 or.)

Era berean, honelako plurimenbrazioetan beherago ikusiko den egitura anaforikoak garrantzi handia izan ohi du atalen arteko lotura gisara:

Ezta gutzitzerik eta ez berretzerik;  
ezta soberainiarik eta ez eskasiarik;  
ezta inorantziarik eta ez ez nuen usterik (111 or.)

Nahi baduzu geldu dadin etsaia, geldu zaitezi;  
nahi baduzu ixil dadin, ixil zaitezi.  
Nahi baduzu sua irauungi dadin, egurrak edeki iatzotzu (293 or.)

Guztiarekin, erabateko paralelismoa gauza ohikoegia ez bada ere, badu Axularrek horren adibide gehiagorik, besteren artean sarri aipatua izanagatik testu antologietakoa dirudien trikolon hau:

Zamaria, gazte deino hezten da.  
Haragia berri deino gazitzen da.  
Zuhaitza ttipi deino birlandatzen da (87 or.)

Oro har, begi bistakoa da, paralelotasun sintaktiko hauetan paralelismo lexiko-semantikoa gertatu ohi da, maila bereko berdintasuna ere eman daitekeelarik (elementu zenbaiten errepikapenaren bidez: aditza bera, etab.).

Adierazia dugu dagoeneko egitura berdintasunak berezko baliabideak erakusten dituela horrelakoetan ere. Orotara, elementu errepikakorrek izango dira gailenduko direnak: batzuetan lexikoa bera, anaforak eta epiforak eta, ezaugarri nagusi bezala, elementu homofonikoa, hots, homoiptotona eta homoioteleutona.

Inoiz, paralelismo lexiko-semantiko hauek azken muturreraino eramaten dira eta ia errepikapen huts bilakatzen. Horrela, baliabide erretoriko hau kapitulu hasieran esandakoa berriro ere gogorazteko eta mezua irakurlearen gogoan iltzaturik uzteko erabili ohi du Axularrek. Hona hemen horietako bat kapitulu hasierako testuinguruan kokatua:

“itsutcea, gogortcea, ez ansiatcea: eta ahalquea [...] galduric, doillorqueriaz preçatcea loriatcea eta sendagailla eguitea” (96 or.)

eta kapituluaren amaieran:

“itsutcea, gogortcea, eta azquenean, ahalquea galduric hartçaz preçatcea, loriatcea, eta sendagailla eriztea” (110 or.)

Erretorikak aholkatzen duenari ezer kendu gabe, begi bistakoa da horrelakoak ahozko tradizioaren edo, nahi bada, kate mintzatuaren (=berbaldiaren) errekurtso laburbiltzaile eta oroitarazle nabarmena direla. Axularren lanbidean erabili behar ziren horietakoak, hain zuzen ere.

### 2.3.- ARLO SEMANTIKOA

Aurrekoarekin estuki loturik, arlo semantikoko irudiak genituzke aipagarri, batik bat planteamendu antitetikoei eta hitz multzoei orokorrean eta sinonimiari bereziki dagozkienak.

Ezagun da hitzaren esparrua izan dela betidanik erretorika klasikoaren lehentasunetako bat (20) eta horretan datzala hain prezeski urdazubiarraren prosaren ezaugarri nagusi bat.

Egia esan, asko mintzatu izan da Axularren hizkuntz joritasunaz, nahiz eta ez horrenbeste aberastasun horrek zuen funtzioaz. Sinonimoen erabilera oparoak, esaterako, hizkuntza normalizatuetao idazlanetan ez bezalako garrantzia hartu bide du Axularren obran, baina zenbaitetan errazpentsa daiteke autore ezberdinek egotzitako asmoak baino ez direla urdazubiarraren liburuan ikusten bide dituzten funtzioak.

Hizkuntza normalduetan helburu erretorikoa eta aberastasun eta zehaztasun asmoak badaude ere, Axularrenean ez omen da horrela suertatzen, beste ezer baino gehiago euskalkietatik barna zabaldu nahia edo agertzen delako haien ustez; muga dialektalen gainetik ulertua izateko gogo hutsa omen.

Inolaz ere, analisi zehatz batek beste zerbait adieraziko liguke. Izatez, ez dirudi funtzio bakar batez hitz egin litekeenik, anitzez baizik. Edonola ere, zinez pentsa daiteke aniztasun horretan badela nolabaiteko lehentasunik eta, era berean, funtzio batzuk beste batzuen aurretik agertzen direla, betiere balorazioen arabera.

(20) “La retórica clásica se ocupaba sobre todo de la palabra y del grupo de palabras y dedicaba una atención mucho menor a la sintaxis y a la semántica de oraciones y secuencias enteras” (Dijk 1983, 128 or.).

Oro har, funtzio nagusi horiek hirutara muga uste litezke. Batetik, testua behar bezala ulertarazteak eskatzen zuen argitasuna eskaintzea genuke. Irakurle xeheari mezua inolako zalantza edo anabasarik gabe helzekion, idazleak testua ahalik argien utzi beharra zuen. Funtzio honek bat egiten zuen erretorikaren ohiko baliabide klasiko batekin, anplifikazioarekin hain zuzen. Testuari argitasuna emateko ezezik, perpaus puztutze errepikakor horrek irakurlearengana xede desberdinekin iristeko ere balio zuen. Liburu aszetiko batean mezua buruan "iltzatzea" ezinbestekoa bada, zer esanik ez dago irakurlearen bihotza hunkitzeko eta mugiarazteko (*movere*) premiaz.

Pentsamenduen eta perpausen aberastasun erredundanteak eta zenbaitetan antitetikoak ere funtzio nagusi horiek lituzke.

Alabaina, pentsamenduena alboraturik, letra hutsaren esparrura jaistean, funtzio horiek aberastuta agertzen dira benetan XVII. menderaino iritsia zen planteamendu klasiko orekatzailearekin.

Iadanik adierazia dugun bezala, baliabide metriko zehatzik ezean -ez baikara bertsozintzan edo poesian ari-, prosak bestelako elementuen beharra du erritmoa lortzeko, nolabaiteko zentzazio erritmikoa eman dezaketen egituren premia hain zuzen: egitura errepikakorrena.

Aurreko atalean ikusi legez, eredu sintaktiko paraleloak dira horretarako elementu erabiliena. Baina, era berean, aitortu beharrekoa da ohiko bihurtuko dela prosaren historian zehar kategoria bereko hitz multzoek (sinonimo zein antonimo, normalean; sintagma osoak zenbaitetan) ahalbidetzen dituzten barne-paralelismoen esparrura jotzea.

Planteamendu horren arabera, beraz, berbaldiaren erritmoa bera izango da hizkuntz joritasuna eskatuko duena. Horrela, paralelismoak berbaldiaren erregulatuak erritmiko nagusi gisa agertuko dira eta hitz multzoak (sinonimoak edota arlo semantiko bereko hitz multzoak, batik bat) perpausen erritmoaren orekatzaile modura.

### 2.3.1.- Sinonimiaz

Semantikak sinonimiaren inguruan daraman eztabaida teorikoari -ba ote da egiazko sinonimiarik?- erantzun praktikoa emanez, erretorikak esanahien "kidetasunez" eta hurbiltasunez mintzatzea nahiago du erabateko egokitzapenez eta identitateaz baino. Beraz, argi da modu zabal eta ez-mugatuan ere mintza daitekeela sinonimiaz ihardutean. Hemen erretorikaren zentzu ireki horretan ulertu eta tratatuko da sinonimiaren irudia.

Erabilpenari dagokionez, ezaguna da ezen "es quizá uno de los artificios de más arraigada tradición y difusión en toda suerte de manifestaciones textuales y a lo largo de todas las épocas y tradiciones literarias" (Mayoral, *op. cit.*, 257 or.). Areago, "el fenómeno en cuestión -darraio- se presenta como uno de los artificios de mayor generalidad, intensidad y difusión de todas las manifestaciones textuales del periodo áureo, tanto en prosa como en verso". Agian horrexegatik, hain zuzen, ez zen sinonimia erretorika eklesiastikoaz arduratu ziren prezeptu-emaileek -Trentokoaz geroztikakoek, batik bat- gogokoegi zuten irudia, akuilatzekoa



baino gehiago balaztarazi beharreko fenomenoa gertatzen baitzen haren bidez sortu hizkuntza puztua.

Luis Granadako, esaterako, garbiki mintzo zen sinonimoen gehiegizko erabilpenaren aurka: “conviene advertir al predicador, que no cargue á una misma sentencia de muchas voces sinónimas, sino es que haya de ponderar una cosa, ó explicar alguna sentencia obscura, que no puede bastantemente expresarse sino de esta manera” (Granada, *Retórica*, 584-585 or.).

Areago, sinonimoak eurrez zerabiltzatenek euren kalterako egiten omen zuten: “Lo que con poca advertencia hacen algunos, que juntan temerariamente muchos vocablos de igual valor: cosa con que el mismo predicador se desacredita, dando muestras manifiestas de vanidad y afectación” (Granada, *Retórica*, 585a or.).

Maiz asko, beraz, bertute bat baino gehiago bekatu larria izan zitekeen, Granadak berak gogorazten duen bezalaxe: “Ni pecan ménos los que, deseando lograr fama de elocuentes, amontonan sin discreción muchísimos vocablos, que significan lo mismo; para hacerse admirar del imperito vulgo y necio auditorio, con esta facilidad de hablar y lijereza de lengua, siendo así que nada puede haber mas contrario á la elocuencia” (Granada, *Retórica*, 600 or.).

Bide beretik doaz Terrones-en hitzak. Izan ere, haren ustez neurtu egin behar da hiztegia; gauzak, argumentuak, azalpenak behar den argitasunaz eskaini behar dira, ez gutxiago ez gehiago; gutxi mintzatzeagatik gauzak argitu gabe uztea bezain kaltegarria litzateke gehiegikeria bera. Terrones del Cañok zioen bezala, “que no se han de decir muchos sinónimos; basta un vocablo o dos para una cosa” (Terrones del Caño, *Instrucción*, 130 or.).

Ahal zen neurrian bederen, hitz eta kontzeptuen arteko erlazio biunibokoa bulkatu nahi izango zuten erretoreek obra erlijiosoetan, inolako nahasketarik -fedezkorik, beharrik behin- eta behar ez zen hanpadurarik ez gehiegikeriarik ere sor ez zedin.

Badirudi, halaz guztiz, urdazubiarra ohiko bide klasikoetatik abiatu zela bere prosa taxutzean. Oro har, bada, egitura paraleloen errepikapena suposatzen zuen eredia izan zen Axularrek oraingoan ere onetsitakoa.

Bestalde, sinonimiaren erabilerari dagokionez, joera zabala atzematen da *Gero*-n: erabateko-erlatiboki hartuta, goian adierazi bezala-sinonimia egiten duten bikoteetatik hasita intentsifikazio semantikoa dagiten egitura plurimenbre desberdinetako osagaietaraino, betiere tartean geratzen diren bimenbrazio ez-sinonimikoegiak eta plurimenbrazio sinonimiko estuagoetatik iraganik.

Egia esan, Axularren sinonimia-zaletasuna liburuaren izenburu luzean bertan antzematen da. Ez bide zuen askietsi, esaterako, Etxeberri Ziburukoak liburuaren banaketarako erabili formula motza (“[...] guztia bi partetan bereçia”). Horretan Axularrek beharrezko nabaritu zuen hitz bikotearen beharra: “bi partetan partitua eta bereçia”, aurrerago ere antzeko zerbait gertatu zelarik: “Bigarreanean quidatcen da, eta aicinatcen [...]”, etab.

Zenbaitek mantendu izan du Axularrek liburuaren xede transdialektalak -“badakit [...] ezin heda naitekeiela euskarako mintzatze

molde guztietara” delakoan oinarrituz- areagotzeko hartu zuela sinonimiaren aldeko jokamolde “adierazgarri” hori. Haren praktika erretorikoak, aldiz, garbi asko erakusten du gakoa ez datzala horretan, ez baitzen hori, itxuraz, Axularrek bilatzen zuena. Izan ere, euskalki aniztasunaz ohartuta egoteak ez zekarren berez eta ezinbestez, ondorio gisa, ahalik gehienek irakurketarako baliagarri izan zitekeen hizkuntz planteamendu oro-hartzailerik, nahiz eta arlo horretan ere lagun zezakeen. Adibideetako interesgarrienak “Irakurtzaileari” zuzendutako hitzaurrean aipatzen dituen sinonimia kasuak lirateke: “mintzatze molde” desberdin haietatik guztietatik bikote bat bakarrik erabiliko du gero obran zehar: aitonon semea - zalduna.

Badirudi, beraz, Axularrek ez duela sinonimia aholku, arau eta bide erretorikoetatik at planteiatzen eta, *Gero*-ko fenomeno sinonimikoaren aurrean, agian aplikagarri gerta litzatekeela Mitxelena Mendibururenean ikusi zuena (21):

Euskalkiei dagokienez, ez dakit noraino Mendibururen *bikoteek* bazter batzuetako eta besteetako euskararen arteko osina gainditu nahi luketen edo, horren premia lehen bezain nabarmena izanik orain, **zenbaitek ahaztua daukan arren, erretorikari zor diogun hitzen parekatzea...** (lxxxii or.; gurea da letrakera lodia).

Hortaz, sinonimia erretorikaren baliabide hedatu bat baino ez; normalean mezua hobeto ulertaraz zezakeena, baina nagusiki aplikaziorako tresna. Horrezaz gainera, jakina, orekarri ezin egokiagoa erritmoaren finkapenean.

Horrela, eskura zuen lexikoaren aberastasuna erakutsiz, serie sinonimiko bitarrak eta hirutarrak -hauek maizago, ohi bezala-nagusituko dira haren obran. Ondorioz, hiru elementu semantikoki berdintsuz (izen, adjektibo, aditz,...) osatutako multzoek markatuko dute prosaren oinarritzko erritmoa. Paralelismo sintaktikoetan agertzen duen joera bezalakoa hain zuzen, baina hemengo hauetan, azken osagai bien artean *eta* emendiozko juntagailuaren presentzia konstatareko edo izanik.

Jakina, honekin Axularrek ez zuen ezer berririk asmatzen; errekurtso klasikoak erabili baino ez zuen egin, erretorika latindarrak gogoko zuen eredu eta XVI. mendeko inguruko hizkuntzetako prosa nabarmenkiro karakterizatzen zuen baliabidea (22) hain zuzen.

(21) Mitxelena, K., 1982, “Mendibururen hizkeraz hitz bi”, in P. Altuna: *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, I, Bilbo, Euskaltzaindia “Euskararren Lekukoak”, lxxix-lxxxii or. (orain J.A. Lakarraren edizioan: Luis Michelena, 1988, *Sobre historia de la lengua vasca*, Donostia, ASJU-ren eraskinak 10, 916-919 or.).

(22) “Este curso lento de la palabra, este deleite moroso que se entretiene a cada paso en la yuxtaposición de sinónimos, es sin duda, el carácter más saliente de la lengua de casi todo el siglo XVI. Tiene de humanismo el apoyarse en el estilo de Cicerón y de otros oradores latinos, que también gustaron de esta repetición de sinónimos y otras tautologías; y tiene de hispanismo el responder a la natural facundia española” (Menéndez Pidal, R., 1947, “El lenguaje del siglo XVI”, *La lengua de Cristóbal Colón*, Buenos Aires, Espasa Calpe, 67 or.).



Zeren orduan da Iainkoaren faborearen  
 eta  
 laguntzaren sasoiña  
 eta  
 puntada (129 or.)

Bikoteka eratzearen arrazoia, dena den, sinonimia estuan (23) letzake nagusiki, izan ere aurkitu ditugun adibiderik gehienak erabateko-“erabatekotasun” horierlatiboki hartuta bada ere- sinonimiaren alorrekoak dira ehuneko handi batean. XII. kapitulua erakusgarri gisara harturik, esate baterako, honelakoak izango genituzke etengabe, ia bestelakoren tartekatzerik gabe: “onduko eta prestatuko”, “irabazia eta aitzinamendua”, “obra on [...] eta [...] meritu”, “bekhatu eta gaixtakeria”, “ezta bihurtzerik eta ez erdiesterik”, “illetsu [...] eta xerlotsu”, “eztu esku-tokirik eta ez lotzeko girthainik”, “higatzea eta akhabatzea”, “iuntatzen eta iosten”, “lothurik eta bat eginik”, “orhoitzapenik eta pensatzerik”, “preziatua eta baliosa”, “estimatzekoa eta ezertan edukitzekoa”, etab.

Nolanahi ere den, badira *Gero*-n barrena lau osagaiz eraturakoak ere, nahiz eta bakanka baino ez agertu. Inoiz -ez, beraz, ohiko- elementu gehiagokorik ere ediren ahal izango da, sei elementuz osaturako esaldi hau bezala:

Ordea gelditzen den seiñalea,  
 marka,  
 notha,  
 kulpa,  
 zorra  
 eta  
 obligazinoa sekulakotz gelditzen da (613 or.).

Halere, testu-segmentu edo esaldi berean plurimenbrazioen arteko konbinaketak ematen direnean, normalean hiru elementuko izan ohi da besteei gailentzen zaiena, batik bat perpaus bukaeretan:

Eta nola zuhaitzak bere dauden lekhuetarik higitu gabe  
 eta  
 trabaillatu ere gabe, ->  
 -> bere azpiko lurraren gozoa  
 eta  
 gizentasuna, ->  
 -> beregana, bere erroez thiraturaz  
 eta  
 edoskiz, hazten,  
 handitzen  
 eta  
 mantentzen baitira (24 or.)

(23) Batik bat bi osagaik osaturako multzoetan gertatu ohi da erabateko sinonimia hau. Printzipioz eta praktikan, zeharo berdina dirudi hitzek eskaintzen duten informazioak, ez baita ezer berririk erantzen: “erhoturik eta zoraturik” (537 or.), “nekhatu eta unhatu” (553 or.), “izitu eta ikaratu” (572, 573 or.), “kulpan eta hobenean” (592 or.), “etsitua eta desesperatua” (620 or.), etab.

Eta geldituko dira alde guztiz     dolutuak,  
   etsituak,  
   deskonsolatuak  
   eta  
   desesperatuak, ->

-> nehondikan ere     erremediorik,  
                                   konsolamendurik  
                                   eta  
                                   esperantzarik ez tuen bat gelditzen den bezala  
                                   (607 or.)

Orobat hiru elementuetako multzoekin osatuko dira gero urdazubiarraren prosa nabarmenduko duten "jauzi" ezagunenak. Adibide bezala honako hau genuke hitz jauzien artean argigarrienetariko bat:

[...] naturalezak berak ere anhitz     donu,  
   dohain,  
   eta  
   abantail suertez     dotatu,  
   hornitu  
   eta  
   konplitu ->

-> baitzaitu,     adimendu eder bat,  
                           memorio handi bat,  
                           eta  
                           borondate     onera,  
   ohorera,  
   eta  
   prestutasunera     erori bat,  
   isuri bat,  
   eta  
   eman bat eman baiteratzu  
   (9 or.) (24)

Azpimarragarria da hotsen jolasarekin batera, eta testu-segmentuaren erritmoaren barnean isosilabismoa nagusitzen ez denetan, hitzen luzerari, hots, silaba kopuruari Axularrek jartzen dion arreta, katearen hitz motzenak hasieran eta luzeagoak ondoren doazelarik:

[...] gu gara Iainkoaren lur     landua,  
   aphaindua  
   eta  
   trabaillatua (172 or.)

Jakina denez, erretorikak *ordonaturalis* delakorako arautzen duen "ley de los miembros crecientes" izenekoaren aurrean geundeke, besterik

(24) Gramatikalki, bigarrena ("adimendu...baiteratzu") aurrekoaren esplizitaziotzat eta menpekotzat hartzen da. Beste modu batez ere har zitekeen, hots, bigarrena aurrekoaren mailakotzat. Dena den "jauzia" hobe ikusten da modu honetan.

gabe (ik. Mortara Garavelli *op. cit.*, 122-hk). Eskuarki lege honek ez luke salbuespenik, ez bada, noski, arlo semantikoarekin loturik doan irizpideren batengatik, hau da, osagaien esanahiaren intentsitateagatik. Horrelakoetan, konkretutik abstraktura, partikularretik generaliziora,... (edota alderantziz) doazen hitz serietan esanahiak izan dezake lehentasuna eta ez hitzaren luzerak. Edonola ere, aipatutako gutzia areagoturik agertuko da hurbiltasun fonetikoa (isobokalismoa, esaterako) aplikatuz gero:

Errespuesta haur hunein      hotza,  
    motza  
    eta  
    gogorra entzun dezatenean [...] (606 or.)

Era berean, interesgarria da aurreratzea egiturotako kidetasun morfosintaktikoak direla medio, Axularrek eurrez darabilela hitz bukaeretakoa homofonia. Horrela, homioptotonaren errepikakortasun fonikoaz baliatu ahal izateko, multzokideei, guztiei, kasu atzizkia edota dagokien modifikatzailea erantsi ohi die: "elhorriz, arantzez eta belhar gaixtoz" (568 or.), etab. (ikus 2.4 atala).

### 2.3.2.- Ditologia sinonimikoa

Gorago aurreratu bezala, hitz bikoteek garrantzi berezia izango dute bimenbrazioetako elementurik oinarrizkoena diren heinean. Ezaugarri gisa, azpimarratu behar da oso loturik doazela perpausen egitura bimenbreekin, hauen menpe baleude bezalaxe. Bestalde, morfologiari dagokion bezanbatean, atalbiko egitura hauek izenez, adjektiboz eta aditzez osatuak daude nagusiki.

Baina guri hemen interesatzen zaigunerako, benetan ohargarria da hitz bikote horien bitartez antzeman eta ondoriozta uste daitekeena, izan ere zenbait bikote fosildurik bezala edo agertzen baitira testuinguru eta orrialde desberdinetan, sinonimia estatikoaren ezaugarri gisa. Aldi berean, kideek elkarren osatzaile edo dirudien adiera erakutsiko lukete.

Ondorioz, Erretorika klasikoak bere kanonean identifikatu ez zuen ditologia sinonimiko hau ezin garbikiago mintzatuko litzaziguke Axularrek horien bidez bilatzen duen efektuaz, hots, amplifikazio erredundanteaz. Jakina, horrek beste ezer baino lehenago eta gehiago (ez hizkundz batasunik, asmo transdialektalik edota bestelako xede ideologikorik) testuaren tratamendu erretorikoa erakutsiko liguke nabarmenkiro. Liburuaren hasierako "bere imaginara eta idurira" ditologia bibliko klasikoa (*Gero*, 21 or.) baliagarria izan liteke ondoko beste gehien (guztien?) argitasunerako ere:

urliak eta sandiak (312 or.),fermo eta fintko (453 or.), berretgarri eta fintkagarri (554-555 or.), sendatzeko eta erremediatzeko (570 or.), konpainiatik eta adiskidetasunetik (578 or.), argi [...] eta klar (568 or.,...), irautez eta iraupez (605 eta 608 or.), sainduki eta prestuki (477-478 or.), justuki eta zuzentki (608 or.), erhoturik eta zoraturik (537 or.), gorderik eta estalirik (537 or.), sendorik eta salborik (560 or.), etab.

Horrelakoetan hitzak berak eskatzen bide dio idazleari bigarren sinonimo baten laguntza, biek esapide finkoa osatuko bailuten. "Ixtitu" hitza, esaterako, birritan baino ez da azalduko obra guztian zehar, bietan "gibelatu" aditzak lagunduta: "ordea han itxitzen eta gibelatzen gara" (47 or.) eta "haren egitetik itxitzeko eta gkibelatzeko" (126 or.).

Gehien errepikatzen diren fosilizatu horietakoen artean, "atseginak eta plazerak" bikotea legoke, besteak beste honako orrialde hauetan: 470, 500, 502, 503, 504, 505 (birritan), 507, 508 (hirutan), 509, 510, 512 (birritan), 520 (hirutan), 554, 560, 581, etab. (25). Berdintsu geundeke horrelako askoren aurrean ziurrenik: "pena eta gaztigua" edota, alderantziz, "gaztigua eta pena" (574, 575, 578, 579, 581, 611, 612 or., etab.), kasu desberdinetan jarritako "pena eta atsekabe" (574, 577, 578 or., etab.), "kalte eta atsekabe" (561 or., ...), "damu eta atsekabe" (562 or., ...), "falta [...], hobena" (3-4, 485, 583 or., etab.), etab. Ondoko honek ere erraz labur bilduko luke orain artekoa: "damu eta atsekabe, pena eta dolore, min eta oihfaze" (589 or.).

Egia da, dena den, sinonimia horiez dela beti erabatekoa edo egonkorra (26), askotan nolabaiteko dinamikotasun semantikoa edo aurrerapena antzematen baita hitzen esanahian; badirudi maiz asko bigarren elementuak (27) areagotu eta zehaztu egiten duela esanahia, bertan dagoela kutsu semantiko handiena: "ustelduak eta khirastuak" (529 or.), "justuago eta sainduago" (551, 552 or.), "gaixto eta bekhatore" (552 or.), "medizinak eta erremedioak" (561 or.), "goibeldu [...] eta ilhundu" (567-568 or.), etab.

Oro har, azken elementua, aurrekoaren argitzaile modukoa edo izango litzateke, lehen atalak diotenaren berretzaile, finkatzaile edo azpimarratzaile, nahi bada. Baina, edonola ere, nagusiki amplifikaziorako zein prosaren erritmoaren erregulatzeko funtzioa duen teknika erretoriko baten aurrean geundeke. Funtzio erretoriko hori ezin nabarmenago genuke liburuaren azken orrialdeetako esaldi honetan:

"Hartan pensa ezazu, hartaz egizu pensamendu, hasnaur eta gogoeta" (620-621 or.).

### 2.3.3.- Antitesiaz

Zinez baieztatu daiteke Axularren liburua planteamendu antitetiko baten inguruan ardazten dela oro har, horietako elementu

(25) Ez dira kontutan hartu singularrean edota alderantzi emanda, hots, "plazent eta atsegin" in 498, 509, 574 or., etab.

(26) Gorago adierazi legez, "erabateko sinonimia" eta "estatiko-egonkor" hitzak urruntasun dialektalak eta kronologikoak aholkatzen duten zuhurtasunaz hartu beharreko hitzak dira. Semantikoki osagaien artean alderik balego ere, aitortu behar da zenbaitetan nekez mintza gaitzkeela erabateko sinonimiaz ez eta desberdintasun semantikoz ere, izan ere aipatu urruntasunak eta konparazio egokirako elementu sendoagoen urritasunak eragozti egiten baitute alor semantikoan nahi bezainbat tinko irutea.

(27) Hitz bikoteetarako baieztatzen dugun hau osagai gehiago duten hitz multzoei ere zabal lekieke normalean, bigarren edota hirugarren hitzen esanahian nolabaiteko intentsifikazioa sortzen baita semantikoki egonkorak ez direnean, orrialde beretik hartutako hiru hauek agertzen duten bezala: "sentimendu, damu eta urriki", "itsutuak, ostinatuak, gogortuak", "gogortuak, harrituak eta finkatuak" (616 or.).

garrantzitsuena izenburuan bertan azaltzen delarik: GERO. Horrek berak eta antonimo gisako funtzionamendua duen ORAIN hitzak osatuko dute liburuaren izaera antitetiko hori. Hau da, ORAIN bereon egiten ez dena, probabilitate askorekin ez da GERO egingo: “[...] gero dioenak bego dio[...].” (*Gero*, 15 or.) (28).

Alabaina, nolabaiteko aurkakotasun semantikoan oinarritzen den irudi honek irudi izateko, Mortarak dioen bezala, “requiere la construcción simétrica de los miembros contrapuestos” (Mortara Garavelli, *op. cit.*, 277 or.).

Liburuan zehar, ideien kontra-jartze hauek nabarmenki azalduko dira antonimoen erabileraren alorrean, unitate lexiko hauek izango baitira ideien arteko gatazka kontrajarria garbienik azalduko dutenak eta antitesiak moldatuko dituztenak.

Azpimarratu beharrik ez dago: irudi hau esparru bibliko eta erlijioso-asetikotik jasoa da. Orobat, antitesiek ohiko formak hartzen dituzte Axularren prosan, kontraste nabarmenenak antonimo klasikoaren bidez datozelarik. Bizpahiru baino ez aipatzearren, hona hemen errepikatuenetarikoa batzuk: gaiztoak-onak, infernua-zerua, bertutea-bekataria, eder-itsusi, triste-alegera (29), pobre-aberats, etab.

Presuna ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duenak, eztu kanpoko edergarriren beharrik, zeren bera baita bere baithan eder asko. Baiña itsusiak, marketsak, behar du anhitz estalki, anhitz bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiekin ere, etxean legoke ederkienik (513 or.)

Hargatik erraiten zuen Iondone Paulok, etzebillala behin ere triste, triste bezala bai, baiña bethi alegera (440b or.).

Eztute konsideratzen, probeari emaitak, ez probetzen baiña aberatsten, ez gutitzen baiña berretzen duela (231 or.)

Interesgarrienak, dena den, gorago aipatutako sinonimiaren esparrukoekin loturik doazenak dira. Hauetan, paralelismoaz baliatuz, oihartzunaren efektu antitetikoa edo bilatzen dela ikusten da:

(28) Oro har, planteamendu hori antitetiko moduan ulertzen den neurrian bakarrik erdietsiko da idazlearen xedea, hau da, egungo bekataria oraingo egoera berean tematzen bada, “konbertsioa” gerorako uzten segitzen badu (egoera antitetikorik suertatzen ez bada, alegia), liburuak ez du nahi zuena lortuko, egoera kontrajarri horietaz ohartu behar duen irakurleari zuzentzen baitzaio obra, finean.

(29) “Triste” vs “alegera” bezalako antonimoek ahalbidetuko dituzten antitesiek presentzia handia izango dute *Gero* guztian, izan ere bekatuaren egoera animikoaren aurkakoa baita konbertsoarena:

“Beraz bere konzientziaren arauaz, haren buruz eta konseilluz gobernatzen eta kidatzen dena ongi da, **alegera da, kontent eta pagu da**. Baiña bertzela, bere konzientziaren kontra dabillana **gaizki da, beltz, ilhun, goibel eta triste da**” (422 or.). “Ikhusten duzunean presunba bat bere bekatuaren dolore hutsez, nigarrez dagoela, uste duzu ezen presuna hura **triste dela**, baiña enganatzen zara: zereu **alegera da**, eta alegeraz nigar hek egiteintu” (501 or.). “Hala haren zerbitzariak ere bere iaunari iarraitkitzen zaitzala, dirudite **kanpoan** deus guti, eta **triste**, baiña **barrenean** dira **alegera** eta konsolamenduz betheak” (509 or.).



Bekhatu egiten duenarentzat dadukazu lainkoa handi,  
zabal,  
franko,  
liberal;

eta  
bekhatu egin gabe, prestuki bizitzen denarentzat, estimatzen duzu  
dela hertsia,  
mehar,  
eskas  
eta  
abarizios (149 or.).

Egitura kiasmikoa ere loturik doa testuan nabarmentzen den planteamendu antitetikoarekin, izatez testu segmentuen ispilu eraketa erakutsi ohi baitu irudi honek (Mortara Garavelli 1991, 282 or.; Mayoral 1994, 273 or.).

“Zahar gaixtoak, zahartuagatik, badu gogoa, indarra zaika falta” (93 or.)

#### 2.4.- ARLO MORFOLOGIKOA

Arlo morfologikoko irudiak, ondoren ikusiko diren fonologikoak bezalatsu, testuaren garapenean elementu ezberdinen errepikapenaren bidez sortuak izango dira eta mezuaren efektuen gehiketa bilatzeaz gain, erritmoren mantentzea eta, aldi berean, hotsen areagotzea ekarriko dizkiote berbaldiari (30).

Jakina denez, eta testu linguistikak agerian utzi legez, irudi hauen garrantzia berebizikoa da berbaldiaren gauzatzean, maiz adierazi den moduan, beraiek duten izaera errepikakorrean baitatza “una de las relaciones sintácticas en las que reside la cohesión del discurso” (Mortara Garavelli, *op. cit.*, 212 or.). Are gehiago, zinez baieztatu daiteke errepikakortasuna berbaldi poetikoaren berezko ezaugarria dela izatez.

Axularren obran ere errepikakortasun hedatu hori izango da prosa barne muineraino tindatuko duena, egitura anaforikoen esparruko irudiez gain, nagusiki hoskidetasuna eta kadentzia erritmikoak izango baitira berbaldia nortuko dutenak, nor bihurtuko dutenak.

Formal eta funtzionalki bereizten hasiz gero, batetik elementu morfologikoan oinarritutako irudiak genituzke eta, bestetik, osagai fonologikoetakoak. Horietako zenbait garrantzitsu, alabaina,

(30) Irudi hauen erabilpen naturala aholkatu ohizen erretorika erlijiosoan, oharkabea eta afektaziorik gabe: “Todas las demás figuras, que consisten [...] en jugar de las palabras o trovallas de manera que cada coma de la cláusula se comience en la misma palabra, o de medio, o acabe, y así otras maneras de correspondencias de palabras, ellas se hacen sin pensar. No hay que advertir en ello, sino saber todas las figuras y tropos de la retórica y usarlas pocas veces, cuando se vinieren nacidas, y sin afectación, guardándonos siempre de decir consonantes, sino en caso muy a pelo y muy gravemente” (Terrones del Caño, *Instrucción...*, 144 or.).

kategorizazio bietan sar litezke, hau da, bietatik edoskitzen dutela esan genezake (similikadentzia sortzeko morfema flexiboak, esaterako).

#### 2.4.1.- Anafora

Jakina denez, jarraikako esapideen hasierako hitzaren edo hitz multzoen errepikapenean datza anafora edo, hobeki, egitura anaforikoa.

Alabaina, erretorika klasikoaren sailkapen eta definizio estuetan onartzen ez zaion literatur ezaugarri gisa, nabarmentzekoa da berbaldiaren irudien artean anaforak hartzen duen funtzioa, izan ere "asume la condición de estructura-modelo de la repetición" (Mortara Garavelli, *op. cit.*, 234 or.). Ondorioz, zinetan baieza daiteke egitura anaforikoak direla prosa erretorikoaren baliabide ohikoenak.

Erritmoaren zentzazioa areagoturik agertzen da irudi hauen bitartez, izan ere anaforaren eredu errepikagarriak erritmiko bihurtzen baitu berbaldia.

Bestalde, eta honetan ohartarazi beharrik ez dago, konfigurazio anaforikoak lotura estua izango du idazleak azpimarratu nahi duenaren garrantziarekin. Ideia edo mezu bat irakurle-entzulearen barnean tinko atxikirik gera dadila nahi denean, anaforak sarrera funtzioa edota einkizun azpimarratzailea beteko du berbaldian:

Orai bada,  
orai behar dugu permatu;  
orai behar derauegu eskuei eragin.  
Orai nori berea errenda,  
orai etsaigoatik iltki.  
Orai ethorkizunean pensa.  
Orai zin zinez, [...] osoki, eta egjazki kofesa (169 or.)

Erabilpenaz den bezanbatean, Axularrek maiz baliatzen duen errepikapen irudia da hau, sarritan bestelako osagai errepikakorrez erantsirik testuraten bada ere. Hona hemen horietako bat:

Handik, hala egoitetik, itsutzen eta gogortzen da bekhatoarea:  
handik ontasunera baiño gaixtatasunera eroriagoa, isuriagoa, eta emanagoa gelditzen da.  
Handik erroak egiteintu.  
Finean handik, bekhata beretakotzen, eta natural bezala errendatzen du [...] (106 or.)

Anaforaren errepikapen formula ezin egokiago bihurtzen da argumentazioaren garapenean, batik bat idazlea arrazoiak eskaini beharrean aurkitzen denean:

[...] zeren Iainkoa den hain on, bihotz bera eta miserikordios.  
Zeren hain maite gaituen;  
zeren bekhatu egin eta berehala ezkaituen gaztigatzen;  
zeren igurikitzen derakun, eta finean,  
zeren hanbat ongi eta ontasun egiten derakun [...] (151-152 or.)

Jakina, argumentazioaren linealtasunean oinarriturik, Axularrek zenbaitetan kate anaforikoak osatzen ditu, hots, serie ezberdinez osatutakoak eta aurretik aipatutako einolabaiteko jarraipen argumentala eskainiz. Nabarmena da hori honako adibide honetan:

Iakin dezazun, bertze erremedio guztiak ahitu direnean, harenak hasten direla.

Iakin dezazun bertze guztiak deus ezin eginez [...] orduan faboratzen zaituela.

Hala faboratu zuen Ionas profeta [...]

Hala faboratu eta begiratu zituen Israeleko semeak ere itsasbaterrean [...]

Hala faboratu zuen Susana [...]

Finean hala faboratu zuen Daniel profeta [...]

Nork erran zukeien, gizon bat hirur egunez eta gauzez balearen sabelean ibiliz gero [...]

Nork sinhetsi zukeien Israeleko semeak, itsas-baterrean [...]

Nork pensatu zukeien Susana [...]

Finean, nori gogorazitzaikaion Daniel bezalakoa [...] (130-131 or.)

Egitura anaforikoak direla eta, ez dira faltako esapidearen barruan nolabaiteko gradazio edo mailakatzea sortuko duten ereduak ere:

Orduan bai,

orduan onduko naiz:

orduan munduari gibela emanen diot, eta [...]. Baiña anarteraiñokoan

dezadan atsegin har,

dezadan mundua zerbitza:

nakion goza:

nakion behin [...] ase, eta asper.

Haur da oraiko presuna gazten deliberamendua,

haur da hekhen gogoa: eta

haur da adinean bezala, gaiñerakoan ere [...] (173-174 or.)

Era berean, ohargarria da nola Axularrek darabiltzan elementu anaforikoa eta paralelismoa pentsamenduen antitesiak markatzeko. Jakina, honek areagotu egingo du prosaren izaera antitetikoa. Adibideak anitz badira ere, Axularrek idatzitako luzeen eta ederrenetariko bat ekarri nahi genuke hona adierazi dugunaren erakusgarri gisara:

*Plazer da* mihiaren anhitz arnegu eta iuramentu egiten duela, nahi duen bezala minzatzera utzte.

*Plazer da* igandetan eta bertze bestetan, solhasean, ian edanean, iokoan eta atsegin hartzen, mezaz, bezperaz eta orazinoz konturik egin gabe, denboraren iragaitea.

*Plazer da* haragiak kilikatzen zaituenean, berehalazeure desiraren konpliztea.

*Plazer da* bidegabe bat egiten deratzutenean, mendekatzea, ordaiñez ordain, moneda berean pagatzea.

*Plazer da*, bere edo bertzeren eskuen artean, zerbait erabiltzea, eta alfer eta aise, ebatsiz izanen bada ere egoitea.

*Plazer da* ohe onean eta garbian etzatea.

*Plazer da* ez barurtzea, ongi iatea, hobeki edatea, eta barazkari onagatik, afari hobearen ez utzte.

**Finean plazer, plazent eta atsegin da**, bere gogoak eta apheetituak diotsan bezala, bide zabalaz ibiltzea.

**Ez ordea ezta plazer eta ez atsegin, baiña gaitz eta penos da**, parabisuko bide meharraren edukitzea; manamendurik hautsi gabe, bethi artez ibiltzea eta bizitzea.

*Gaitz da* mihiaren ongi gobernatzea, linburtzetik begiratzea, eta bertzeak zutzaz mintza litezin, nahi zendukeien bezala, zu ere hetzaz minzatea.

*Gaitz da* bidegabe bat egiten deratzutenean, barkhatzea: gaizki erraiten deratzunari ez ihardestea, zeure eskuan duzularik, ez mendekatzea.

*Gaitz da*, haragiak tentatzen zaituenean, gaietan eta okhasinoetan zarelarik, zeure buruaren bortxatzea, desiraren ez konplitzea.

*Gaitz da* tratuetan eta salerosietan, bethi egiaz ibiltzea; bertzerena eskuan darabillazularik, ez kutsatzea, errotan irinik ez lotzea.

*Gaitz da* zur baten gainean, zeure ohe ona utzirik, eta larru arras zilizio bat, zerdazko gerriko bat harturik etzatea eta ibiltzea.

*Gaitz da* barurtzea, ianhari ona, edari hobe, eta apheetitu ere duzularik, guztien Iainkoagatik utzte.

*Finean gaitz da eta penos da* munduan garelarik munduan ezpaikina bezala, munduaz konturik egin gabe, Iainkoaren borondateari errendaturik egoitea; haren manamenduen arauaz, haragiz ezpaikina bezala, bethi spiritualki bizitzea” (480-481 or.) (Gureak dira letra lodi-etzanak).

#### 2.4.2.- Bestelako errepikapen-irudiak

Anaforaren alderantzizko egitura (...X / ...X) erakusten duen irudi epiforikoak ere badu bere tokia Axularren prosan, nahiz eta, maiztasunari dagokionez, egitura anaforikoa baino gutxiagotan. Hala ere, adierazi behar da egitura epiforikoa aditz laguntzailearen errepikapenagatik burutzen dela normalean, ez bestegatik:

Ea girstinoak, [...] bertze egiteko guztiak utzirik  
 hurbil *zakizkidate*,  
 iarraiki *zakizkidate*  
 eta  
 [...] lagun *zakizkidate* (7 or.)

Zahartzean begietako bista laburtzen da,  
 beharrietan gorreria egiten da;

belhaunetan hezueria iartzen da,  
indarra gutitzen da,  
apetitua galtzen da,  
loa ioaiten da,  
ikhara ethortzen da,  
larrua zimurtzen da,  
illea urdintze da,  
burua karsoitzen da,  
hatsa khirasten da (182 or.)

Anafora eta epiforaren arteko uztartzetik sortzen den sinploke edo *complexio* irudia, zer esanik ez dago, aurreko paralelismo formak baino gutxiagotan agertzen da Axularren prosan.

**Behar ez denean** fidatzen zara *eta ez behar denean*.

**Behar ez denean** iduritzen zaitzu Iainkoaren miserikordia handi, *eta ez behar denean* (148 or.)

Berdintsu esan beharko litzateke testu segmentu baten hasieran eta bukaeran hitz edo hitz multzo baten errepikapena (X...X) adierazten duen epanadiplosiari buruz, errepikapenean oinarritu arren, ez baita maiztasun handiko irudia.

Aditzen da, **galduak goazilla**, ez zeren ikhusten dugun iguzki hunek egiten duen, arratsaldean, itzala handiago eta luzeago, baina zeren gure arratsaldean, zahartzean, adina irauliaz, eta behehituaz dohanean, eta dihoakunean, mendekatze, enganatzeko, eta are bizitzeko nahia, eta desira ere, berretzenago eta luzatzenago zaikun; zeren zaharrago eta gaixtoago egiten garen: hargatik erraiten du **galduak goazilla** (192-193 or.) (azpimarrak gureak dira).

*Gradatio* edo *klimax* delakoak, aldiz, interes berezia eskaintzen du Axularren prosan. Izatez, gradazio izenekoa jarraikako anadiplosia baino ez da, hots, unitate sintaktiko bateko bukaeraren errepikapena ondoko unitatearen hasieran (...X / X...Y / Y...). Oro har, mailakako eskemaren arabera eratua da, berbaldia maila bakoitzean pausatuko bailitzen. Ikusten denez, errepikapena da oinarria.

Lehenik hiltzen da haurtasuna;  
haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointasuna;  
morrointasunaren ondoan hiltzen da gaztetasuna;  
gaztetasunaren ondoan hiltzen da zahartasuna;  
zahartasunaren ondoan hiltzen da sentontasuna (63 or.)

Handik sortzen da usantza:

usantzatik ederestea,

ederestetetik ezansiatzea:

ezansiatzetik ez sentitzea,

ez sentitzetik itsutzea, gogortzea, eta azkenean, ahalkea galdurik hartaz prezatzea, loriatzea eta sendagailla eritzea (110 or.)

Axularrek darabilen eredu konparatibo-argumentatzailean irudi honek estrategia aldaketa suposatzen du, hots, nolabaiteko planteamendu logiko-silogistikoa suposatzen baitu irakurlearentzat. Alabaina, ez da gehiegitan baliatuko duen irudia.

Irudi morfologiko gisa sailkatu ohi direnen artean ez dira faltako Axularren prosan erretorika klasikoan *derivatio* bezala ezagutzen zirenak (erro beretik datozen hitz desberdinak), XVII. mendean ohi legez, horrelakoak oso gogoko baititu urdazubiarrak:

“Zeren hain da gauza **galdua** eta **galgarría** alferkeria” (34 or.)

“Gero hunen **orai**, **orairatzeko**, sendatzeko eta erremediatzeko” (570 or.)

Era berean, klasikoak bihurtu dira “bentura” hitzaren inguruan eraturiko honako hauek:

“Nola geroko **benturaren benturan benturaturik** galtzen garen” (68 or.)

“Eztuzu pensatzen **bentura** horrek, **benturaz**, **bentura** gaixtoa emanen deratzula?” (73 or.)

*Derivatio* guztietatik esanguratsuena, dena den, honako hau litzateke ziurrenik:

San Agustinek eztu konturik egiten, aizineko perseberantziaz eta irauteaz, **finera** baiño lehen, edo **finean** berean, **finafinatu** gabe **finatzen** denaz (457 or.)

Errepikapen irudiekin bukatzeko, gogora dezagun badirelazenbaitzuk errepikatutako hitzen artean nolabaiteko desberdintasun formala erakusten dutenak. “Hitz jolasak” deitu izan diren hauek maiztxo agertuko dira Axularren testuan barrena.

Oro har, esan daiteke unitate lexikoen arteko homonimia edota polisemia erlazioetan oinarritzen direla irudi hauek, eta guztietatik paronomasia arlokoak direla nagusi. Era berean, ez dira faltako obran *antanaklasia* izeneko aldaki homofonikoetan (baina ez homografikoetan) oinarrituako irudiak ere. Ondoren, eta taxonomia hutsetan galtzeko arriskua ekidin ahal izateko (31), erretorika liburuetan hitz jolas bezala sailkatuak agertzen diren horietako adibide batzuk baino ez ditugu emango:

“izenarekin, izana duzuenak” (7 or.), “arren othoi, orhoit zaitezi” (20 or.), “hitz mitzti” (538 or.), “fits-mits” (540 or.), “zinak eta minak” (426, 427, 558 or.), “erran-merranak” (312, 358, 372, 443 or.,...), “zintki eta fintki” (32) (460, 552 or.), “gor eta sor” (555 or.), “Herra errabiatu” (586 or.), “iarriko dira

(31) Ezaguna da horietako irudi gehienak morfologi arlokozat hartu ahal badira ere, ezin dutela osagai fonologikoa galdu, ez eta, ondorioz, arlo fonologikoko irudien artean kokatuak izateko “eskubidea” ere.

(32) Eta hauetatik sortuak: “zintkienic eta fintkienic” (175 or.), “zintkiago eta fintkiago” (333, 477 or.).

harrituak” (588 or.), “sorthu eta berehala hurtu” (593 or.), “hotza, motza ” (606 or.), “irautez eta iraupez” (608 or.), “onhest, modest” (177 or.), “zinez zinateke” (590 or.).

Ezagarri bezala, ikusten denez, hitzen eta hotsen arteko paralelismo efektu-sortzailea azpimarratuko genuke. Halaber, nabarmena da jolas horietako askoren oinarrian bi silabako hitzak aurkitzea, estilistikaren ikuspuntutik malgutasun eta plastikotasun gehien erakusten duten multzoak ziurrenik.

## 2.5.- ARLO FONOLOGIKOA

Aurrekoetan bezalatsu, arlo honetako irudiek ere errepikapenaren printzipioan dute haien funtsa, zein bere modura eta gisara. Axularren prosan, alabaina, similikadentziarena izango da osagai fonologikoaren inguruan ardaztutako baliabide garrantzitsuenak. Edonola ere, ezin ahaz liteke aliterazioa bezalako irudien presentzia afektu eta efektu-sortzailea.

### 2.5.1.- Aliterazioa

Ezaguna denez, aliterazio hitzaren egungo erabilpenak nasaiki gainditzten du erretorika klasikoaren kategorizazio hertsia (33). Halere, esan beharrekoa da irudi hori elkarren ondoko hitzen hasierako kontsonantearen edo silaben errepikapenera mugatzen zela zioen kontzepzioa bera lasaitasunez hartua izan ohi zela idazte orduko praktika konkretuan, aliterazioa eskuarki kategorizazio bezala baino gehiago baliabide gisa hartzen baitzen idazleen artean. Horrela, testuan isuritako mezuaren izaerarekin estuki lotuta agertzen zen baliabide hau, efektu afektibopsikologikoak lortzeko asmoarekin hain zuzen.

Ildo horretatik, eta kasuistika luze-zabalaren barnean, nabarmentzekoa da, esaterako, honako pasarte honetan erakusten den aliterazio jolasa, egileak irakurle-entzuleen implikazio zuzena (“z-uek”) eta larria (infernuaz ari da) gogorazi nahi duela ematen baitu:

“Galdez zaudete zer izanzen den zuetzaz, noiz ilkitko zareten hortik [...]” (606 or.).

Edota, koleraren unerik latzenak adieraztean kontsonante dardarkariak urdazubiarrak egiten duen erabilera “izugarria”, isladatu baino gehiago “r”-aren aliterazioak areagotu egiten baitu egoeraren dramatismoa:

Orduan erreko da bere baithan barrena, despitatuko da, tristetuko da, malenkoniaturko da. Eta guztiz ere, baldin bere haserre hartan kolperik egin badu, barber beharrean nehor ezarri badu, edo bere hitzetan, nehork bahirik hartu badio (282 or.)

(33) Ikus Lázaro Carreter, F., 1990, *De Poética y Poéticas*, Madrid, Cátedra, 232-hurrengoak.

Ez da faltako bestelakorik ere: “zeren hain da gauza galdua eta galgarria” (34 or.), “ernatuko eta erdutuko” (35 or.), “hortz karrask hots hura, hotzetik [...]” (585 or.), etab. Dena den, arlo honetan pasarte ezagunenetakoa genuke liburuaren hasierakoa, eta ez bakarrik “do-” silabaren aliterazio klasikoagatik:

Gure Iaungoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere gainki, bere imajinara eta idurira, bat ere bekhatulik eta bekhaturen kutsurik ere gabe, anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotaturik, egin zuenean, ibeni zuen berehala, lurak zuen parterik, eta aurkientzarik hoberenean, lurreko parabisuan, lekhu plazerez bethean. Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala, eta begira ongi parabisu hura (21-22 or.)

### 2.5.2.- Similikadentzia

Axularren prosak, lehen irakurraldian somatzen den legez, errepikapen fonologikoa du etengabeko ezaugarri. Beherago ustezko poesi hoskidetasunaz edo errimaz ihardungo denez gero, har dezagun oraingoan similikadentzia bezala ulertzen den hitz edota sintagma paraleloen bukaeretako fenomeno homofoniko zabala.

Definizioz “[...] recurrencias fónicas localizadas en las sílabas o fonemas finales de dos o más palabras situadas en posiciones comparables en la cadena del discurso” (Mayoral, *op. cit.*, 63 or.) diren fenomeno hauek *homoioteleuton* eta *homioptoton* irudietan oinarritzen dira, bataren zein bestearen erabilpena hizkuntzen kasu-sistemak markatu duelarik.

Inguruko hizkuntzetan ez bezala, euskararen deklinabideak, latinaren antzera, homioptotona baliatzeko aukera ezin hobea eskainizion urdazubiarrari. Horregatik, elementu errepikakor legez, testuinguru guztietan azalduko den fenomeno ia izango da bukaera flexiboen hau. Jakina, honek ez du inolaz ere ukatzen homoioteleutonaren erabilera naroa.

Adibideak, zer esanik ez dago, jarraian eta etengabe agertzen dira *Gero* guztian, ez baitago bertan orrialderik sorta bat kasu adierazgarri ez duenik. Kasuistika, beraz, zabala da eta deklinabidearen kasuetara eta aditz flexio guztietara iristen da. Horrexegatik hain zuzen ez da hemen sailkapenik aurkeztuko. Aski bedi liburua zabaltzea.

Maiztasunean biziki apalagoa izan arren, berdintsu esan genezake homoioteleuton irudiaren erabilpenari dagokionez, Axular prosaren kolorea nabarmenaraz dezaketen hitz bukaerakideen bila dabilela susmatzen baita berehala. “Habea, iabea” (5 or.), “bethi nahi, bethi nagi” (54 or.) eta “onhest, modest” (177 or.) paronomasikoak, “pairamendua, begiramendua” (177 or.), “hatsa, likitsa, kiratsa” (471 or.), “Iainkoaren laguntza, ethorkizuneko esperantza, pagamenduaren segurantza” (484 or.), “egiten du gar, eta egiten du nigar” (501 or.), etab. hona testura genitzakeen adibide guztietatik batzuk baino ez dira.

Homofoniak areagotu nahirik nonbait, Axularren prosan ez da faltatuko homioptoton eta homoioteleutonaren bilketarik ere:



“ausartziarik eta eskudantziarik” (16 or.), “itsutasun haren eta gogortasunaren” (105 or.), “gaiñak, pikaiñak” (182 or.), etab.

Edonola ere, eta homioptotonarena gehien eta modu sistematikoen erabiltzen den baliabide fonologikoa dela esan baliteke ere, paralelismoak eta errepikapenak daude beti urdazubiarraren prosaren oinarrian erritmo berezia markatuz. Honako honetan, ikus daitekeenez, ez da aliterazio klasikorik ere falta:

Zer esker uste duzu izanen duela,  
edo  
irabazi egingen duela

zahar ezinduak etsaiari bidera harmaturik ez  
ilkitzeaz?

Arratsean etxerat goiz biltzeaz

eta

bihurtzeaz?

Amorantiara gaztean  
bezala ez ioaiteaz?

Dantzan

eta

iauzian ez ibiltzeaz?

(177 or.)

Guztiarekin ere, zenbaitetan badirudi Axularrek gogokoa duela hitz bukaeretako fenomeno homofonikoa bikoteka edo hirukoteka jartzea, hitz jarioarekin jolasean balego bezala eta nolabaiteko jauzi homofonikoak eginez.

Ildo horretatik, ohargarri deritzogu prosaren mugimendu latza edo izan daitekeena azaltzen duten pasarte luzeetan Axularrek erakusten duen similikadentziaren premiari. Badirudi baliabide morfologiko-testualen faltaren aurrean, testuaren dinamikak beste zerbait eskatzen diola urdazubiarraren senari. Horrelakoetan, irudi homofonikoak baliatuko ditu sarri askotan, bertsoetako hoskidetasun librearen antzo:

Nork edirenen du ene baithan *faltarik?*

Nork erranen du nik badudala *bekhaturik?*

Galdez *nagotzue.*

Deus badakizue, *errazue.*

—Zer diozu, *Iaungoikoa?*

Zer hari *zara?*

Nolatan egiten derauezu galde hori zeure *etsaiei?*

Zutzaz gaizki erraiteko okhasino bilha dabilzane*i?* (448-449 or.)

Similikadentzia hertsiairen sailetik aldenduz, zenbaitetan Axular asonantzia bezala ezagutzen diren homofonia bokaliko hutsak erabiltzera makurtzen da:

Ordea guztiarekin ere ur hetarik batzuk dira gazi,  
eta  
bertzeak geza;

batzuk gogor,  
bertzeak bera (215 or.)

Horrelakoetan, hots, mezu eta baiezen kategorikoetan, argi dago autoreak homofonia desberdinen beharra sentitzen duela. Esaldia edo testua egokia eta orekatua idatziko badu, nabarmenki premiazkoa du egileak, paralelismoaz eta isosilabismoaz gainera, aliterazioa eta bestelako homofoniak baliatzea.

### 2.5.3.- Hoskidetasun gisakoa

Harrigarria bada ere, prosazko obra honetan teoriarik bertsoei neurkera erakusten dutenei, jakina- legokiekeen nolabaiteko errima edo hoskidetasuna ere atzeman uste daiteke zenbait pasartetan. Poesiaren esparrutik zipriztindutako aztarnez eta ereduz ari gara.

Taxonomikoki fenomeno hau gorago aipatutako similikadentzia irudien barnean sartzeak arazorik ekarriko ez balu ere, guk beste zerbait gehiago ikusi nahi genuke horrelakoetan. Hots, Axularrek gogoan zeuzkan neurri eta musika eredu konkretuen arabera moldatu eta egokitu bide zituen pasarte horiek, kadentzia erritmiko jakin batzuen arabera eratu hain zuzen.

Hemen tratatzen diren hoskidetasunak, bada, nolabaiteko poesi ereduari jarraitzen dioten sekuentzien bukaeretakoa fenomeno homofonikoak liriateke. Hortaz, honela uler liteke hoskidetasuna: “[...] regulación estricta en el discurso en verso de los fenómenos de *Similicadencia* (*Homeotéleuton* y *Homeóptoton*), cuya realización queda restringida a unos lugares precisos de las secuencias versales: las correspondientes a la o las sílabas finales de verso o hemistiquio” (Mayoral, *op. cit.*, 68 or.).

Edergailu poetiko honen prosaratzea, izatez, ez da harritzekoa, ezaguna baita edozein garaitako hiztunen artean sistema formulistiko bezala edo defini daitezkeen hauek izan ohi duten arrakasta eta nola lortu duten berbaldi arruntenean ere urtzea (34), besteak beste -eta gure autorearen erabilpen erlijiosoaren arazoien artean ez litzateke hau meheena- mezuaren memorizazioa eta errepentizazio automatikoak errazten zituztelako.

Arazoia arrazoi, garbidago Axularrek nagusiki-baina ez eskusiboki-ahozkotasanaren munduko erreferentzia poetikoen esparrukoak ohi diren ereduak baliatzen dituela *Gero*-n barrena, normalean formula sistemari atxikirik eta mezua tinko, labur eta “poetikoki” neurtu-errimatua aurkeztuz.

Horrela bakarrik uler daiteke aipatu fenomenotik ezin hurbilago diruditen tankera hauetakoen ekoizpena (35):

(34) Oinarrian poesi ereductako elementu funtsezkoenak agertzen dituzten behialako erretraetatik egungo eslogan gisakoetarainoko saila, inkontzienteki bederen, “prosaraturik” dugun bezalaxe.

(35) Aurkezten dugun neurkerak ez du kontutan hartzen ahozkatzean egon zitezkeen edo egon litekeen azentua, izan ere agerian baita silaba bakartzat hartzen diren bertso-lerro bukaerakoak oxitonotzat ere har litezkeela zenbaitetan.

Permititzen du Iainkoak,	5 + 3
munduan diren probeak,	5 + 3
hey ongi eguinez,	6
salba ditezin aberatsak (36) (225 or.)	5 + 3

Erregularitasun metrikoa, esan gabe doa, ez da beti estuki betetzen den ezaugarria, batik bat formula antza hartzen dutenen artean. Horregatik, horrelakoetan neurkeraz baino gehiago *pautaz* mintzatu beharko genuke, "erregularitasuna" autoreak berbaldiarekiko duen izpiritu edo zentzu musikalak bideratuko bailuke hein handi batean, eta ez silaba kopuru zehatzak.

Honelako ereduak erakusten dituzten hoskidetasunak aski arruntak dira eskuarki, batez ere buruz edota ongi ikasteko mezua daramatenak:

Probeari emanen diozuna,	3 + 4
guti edo anhitz, emozu berehala (229 or.)	3 + 4

Garrantzitsuena, ikus daitekeenez, mezuari egokiro eusten dion parametro erritmiko eta homofonikoa litzateke.

Ohargarria da nola egileak azpimarratzen duen zenbaitetan mezua -irakurlearen gogoan hobeto iltzatu nahian nonbait- atalak aldatuz baina elementu foniko-erritmikoak iraunaraziz:

anhitz balio du esperantzak,	6 + 4
indar handia du fidantziak (133 or.)	6 + 4

eta, orrialde berean, lerro batzuk beheraxeago:

anhitz balio du fidantziak,  
indar handia du esperantzak

Era berean, sail honetan badira atsotitz edo esaera zaharren kutsua erakusten duten ereduak ere, betiere hoskidetasuna eta pauta metrikoa bezalako konstanteak mantentzen dituztelarik:

Dagigun ongi, eta eztezagula beha nori (224 or.)	3 + 2
Emazu beraz duzunaren arauaz (229 or.)	3 + 2

Isosilabismoaz gainera, homofonia ere ia erabatekoa izan daiteke horrelakoetan, hitz eta hots jolasa azken muturreraino eramana gerta daitekeelarik:

Pontuaren latza;	4 + 2
Pausuaren gaitza (559 or.)	4 + 2

(36) Ez dirudi tradizioetik at litzatekeenik "aberatsac" hiru silabatan ebakitzea: a-b(e)ra-tsac.

Neurrihandi batean behintzat, eslogan modernoen teknikaren aurrean gaudela lirudike, haietan bezalatsu, hauetan ere etengabe erabiltzen baita hoskidetasunaren -euskaraz homioptotonaren irudipean eskuarki, baina baita homiooteleutonaren eta aliterazioarenean ere- eta kadentzia erritmikoen paralelismo errepikakorra (Mortara Garavelli, *op. cit.*, 267 or.).

Edozein modutan, ez du ematen erdi aroko errefrau eruedetatik urrunegi izango ginatekeenik, ez eta orduko poesia neurkeratik ere, ondoko atalean ikusiko den bezala.

## 2.6.- ERRITMOAREN AREAGOTZAILEAK

Ohi bezala, eta erretorikak agindu moduan, tempus diferentek atzematen dira Axularren obran zehar, desberdinak baitira exordioak eta exhortazioak, edota azalpenak, sailkapenak eta narrazioak, etab. Ikusi den bezala, batzuk lauagoak edo lirateke (narrazio eta argumentazio arlokoak) eta beste batzuk "latzagoak" (aholkuen esparrukoak, batik bat).

Edonola ere, Axularren obran lehenengo lerroak irakurtzen hasi orduko, balirudike idazleak nolabaiteko eskema metrikoa izan duela eredu. Edo, bestela nahi bada, idatzitako lerrook belarrian zerabilkion konpas edo musika akonpasatu antzeko batek bideratu zizkiola, agian hitzegiteko ohitura batek edo sermoiak egiteko moduak,...; edonola ere, ahozkotasanaren fenomenoarekin eta kulturarekin lotutako zerbaitek dirudi Axularren prosan atzematen den "metro"-aren arduraduna, ez behintzat idatzizkoaren planteamendu hutsak.

Zenbaitetan, beraz, perpaus neurtuen inpresioa ematen du Axularren prosak. Eta ez gara homosilabismo esfu-estuaz mintzatzen ari, aski garbi utzia baitzuen erretorika eklesiastikoak silaba-kontaktaren infantilismoa (37), ohiturak eta beste hainbat faktorek sortutako neurker mekanismoaz baizik, nolabaiteko isosilabismoa ahalbidetzen zuenaz hain zuzen.

Arrazoi du Kayser-ek honako hau dioenean: "En una palabra, el que proclama en vez de narrar, tiene pleno derecho a utilizar en su prosa estructuras métricamente reguladas" (38). Baina, egia esan, ez da soil-soilik egilearen eskubide hutsen arazoa; transmititu nahi den pentsamenduak eta mezuak ere badute horretan zer esanik, batik bat ahozkotasanaren kulturarekin tinko lotuta daudenean, honako liburu honetakoak bezala. Ildo horretatik, ezaguna da bertsoaren eta eskema metrikoen egokitasuna elementuak gogoratzeko eta euskal literaturan egin izan den erabilpena.

Horretan eta ahozkotasunean murgildutako gizarteak zituen erreferentzietan bilatu beharko genituzke, hortaz, prosaren erritmo

(37) "[...] no se ha de hacer con la enumeración de las sílabas, que sería cosa pueril, sino con el uso y el ejercicio que facilitan, que por cierto sentimiento y gusto del entendimiento, percibido por el oído, se haga un miembro igual al antecedente" (Granada, *Retórica*, 596b).

(38) Kayser, W., 1992, *Interpretación y análisis de la obra literaria*, 4. ed., Madrid, Gredos, 351 or.

beharra azaltzeko beste elementuak, izan ere Ongek berak oroitarazten duen moduan, “el pensamiento extenso de bases orales, aunque no en verso formal, tiende a ser sumamente rítmico, pues el ritmo ayuda a la memoria, incluso fisiológicamente” (39).

Atal honetan Etxepareren, Ziburuko Etxeberriren eta garai hartako ahozko poesiaren ezaugarria edo den neurkera ereduaren oihartzuna oso nabarmena da Axularren prosan ere. Eta “neurkera” hitza bortitzegia balitz prosaren esparruko erritmoa definitzeko, agian Terrones del Cañok darabilen “musika proportzioa” adiera (40) erabil genezake guk ere oihartzun eta zentzazio proportzionatu hori adierazteko.

Oro har, lau silabako multzoak izango dira obran zehar antzemango diren oinarritzko “neurri-unitate” edo proportzioak, Zizeronek bestetarako ohi zuen bezalatsu:

“...para que también la acentuación y el ritmo contribuyan a realzar el tono armónico del pensamiento vertido en la sintaxis, Cicerón se vale de *elementos métricos* que concluyan y cierren el final de la cláusula. Así evitará ordinariamente terminar sus frases con palabras muy largas o demasiado cortas. Sus preferencias se inclinan por las palabras de tres o cuatro sílabas” (Terrones del Caño, *Instrucción*, 240 or.)

Horrela, Axularren liburuaren izenburu ondoko lerro deskribatzaileetan beretan neurkera edo musikaltasun horren oihartzuna aurki daiteke:

Bi par-te-tan / par-ti-tu-a / (eta) be-re-zi-a  
[...] e-mai-ten da / a-di-tze-ra / zen-bat kal-te [...]

Ikusten den bezala, Axularrek unitate horien luzerara erraz egokitzen diren hitzetarako (41) joera du:

“ki-da-tzen da / (eta) ai-tzi-na-tzen [...]

Ildo beretik abiatuko dira pasarte landuenetako ereduak (42), betiere 3. orrialdean puntu artean -ezin nabarmenago, beraz- dagoen “Hel-du nin-tzen” harako haren neurriaren arabera taxutuak, hots, lau silabatako unitate horiek nagusi izanik. Etxauzi egindako laudorioen atalean, guztien laburbiltze prosopopeiko erritmikoa (anaforikoa eta neurtua) aurkeztean, eredia nabarmena da:

(39) Ong, Walter J., 1987, *Oralidad y lenguaje. Tecnologías de la palabra*, Mexico, FCE, 41 or.

(40) “[...] se procura que todas las palabras [...] estén distribuidas con cierta proporción musical” (Terrones del Caño, *Instrucción*, 245 or.).

(41) Honako adibide hauetara ez dugu azentu edota ebakera arazorik sor lezakeen hitz multzorik ekarriko, nahiz eta sarritan horietako zenbait (silaba bat luzeagoak diren batzuk, besteak beste) samurkiro -eta tradizioarekin bat eginez- sar litezkeela dirudien. Adibide bezala, “Ez-t[e]rau-ta-zu / i-gu-ri-ki” (3 or.) jar liteke.

(42) Pasarte hauek ageriago suertatuko dira egileak nolabaiteko afektuak agertzen dituen ataletan (lehenengo gutunetan, exhortioetan, ...).

Be-rak di-ra / be-re bu-ruz / as-ko go-ra / min-tzo:  
 be-rak di-ra / be-re bai-than / as-ko klar / e-ta o-zen.  
 Utz di-tza-dan / be-raz nik hek / hu-tsik / ez-ta-gi-dan (9 or.)

Berdintsu esan liteke “Irakurtzaileari” izeneko gutunaren hasierako lehenengo lerroei buruz (15 or.), lau silabakoak baitira oinarritzko eritmoan agertzen diren unitateak:

“E-gun ba-tez / kon-pa-iñi-a / on ba-te-an / eus-kal-du-nik /  
 bai-zen e-tzen / lekhu-an / nen-go-e-la [...]”

“e-tzu-e-la, / deu-sek e-re / han-bat kal-te / egiten”

“e-gu-ne-tik / e-gu-ne-ra, / bi-ha-rre-tik / bi-ha-rre-ra / lu-za-tze-  
 ak”

Halaber, eta neurriari dagokionez, aipagarriak dira zazpi silabatako neurkerak, parametro horietaz baliatzen baita Axular zenbait tokitan, batik bat exhortazioetan.

Erraz asko identifika litezke testu segmentuak -gehiago ala gutxiago bortxatuz edota *anacrusia* delakoaren bidez-zazpikotan banaturik (maiz aski 4 + 3 egitura nabarmen gelditzen delarik):

“ioan za-tzaiz-kit / lu-rre-tik” (3 or.)

Alabaina, ez da faltako Etxepareren neurkeraren eredukorik ere:

“e-tzu-e-la, / deu-sek e-re / han-bat kal-te / e-gi-ten” (15 or.)

Orobat, formulen kasuan oso konstantea izango da erregulartasun metrikoa:

No-la bi-ci / ha-la hil (214 or.)

Ongui bici, ongui hil,  
 gaizqui bici, gaizqui hil (215 or.)

Formula batzuk bereziki erabiliak izango dira exhortazioetan, irakurle-entzulearen nolabaiteko inplikazioa bilatzen dutenak. Horietan ere paralelismoa eta isosilabismoa nabarmena izango da, ondoko hauetan ikusten den bezala:

ez-te-ça-çu-la pen-sa,  
 ez-ta-qui-çu-la i-du-ri (43) (214 eta 248 or.)

ez-te-ça-çu-la be-rant,  
 ez-te-ça-çu-la lu-çat (620 or.)

Azken adibide honetako aditzek, ordea, ba bide dute beste neurri eta erregulartasunik ondoren datozen aditzekin konparatzen baditugu:

ezteçaçula ...  
 ezteçaçula ...

bihurçaiteci ...  
etçabiltçala... (620 or.)

Gorago esan den bezala, hitz kopuruaren berdintasuna da erabateko paralelismoaren oinarria. Isosilabismoak areagotu baino ez du egiten printzipioz egituraren aldetik berdinak diren atalen erritmoaren indarra. Zenbaitetan elementu anaforikoak ere laguntzen du egiteko horretan:

(Ordea) eneak dira faltak,	7
enea da hobena (3 or.)	4 + 3
Zen ederrena, (egin zen) itsusienik	5 + 5
bere gogarena / gaizkienik	6 + 4
Onhetsiena / gaitzetsienik	5 + 5
eta gorenena / beherenik (140 or.)	5 + 5

Azken adibide honetan, esan gabe doa hoskidetasun bikoitza burutzen dela, hots, segmentu bakoitzaren bukaerakoaz gainera (-enik), barneko hoskidetasuna dago (-ena).

Baina barneko hoskidetasunak eta similikadentziak alboratu gabe, azpimarragarria da Axularrek daraman jokamolde luzagarria, hau da, esaldiaren luzagarria, silabikoki hitzik luzeenak azkenerako uzten dituen:

Zamaria, gazte deino hezten da.	4 + 4 + 3
Haragia berri deino gazitzen da.	4 + 4 + 4
Zuhaitza ttipi deino birlandutzen da (87 or.)	4 + 4 + 5

Neurkera edo proportzioaren jokamolde klasiko hau, ikusten denez, prosaren erritmoaren ezaugarri garrantzitsu bihurtuko da Axularrean ere.

\*\*\*\*\*

Konklusio gisara, bada, zinez esan liteke Axularren prosak sistematikoki erabiltzen dituela erretorika eklesiastikoak aholkaturiko baliabide garrantzitsuenak, horietako interesgarrienak paralelismoaren formetara bildutakoak direlarik, hau da, hitzen, hotsen, forma eta egitura sintaktikoen, kadentzia erritmikoen eta besteren ezarpen paralelora. Beraz, ez da kasualitatea berbaldiaren osagai nabarmenenak -egitura erretoriko bihurturik agertzen direnak, alegia- isokolona, sinonimia eta fenomeno homofonikoak (homioptotona, homioleutona, etab.) izatea. Azpimarratzekoa da, halaber, fenomeno sinonimikoak erakusten duen funtzio erretoriko anplifikatzailea eta erritmo-erregulatzailea.

Arrago honetatik sortutako erredua izango da, finean, aszetika agorra eta astuna, Euskal Literaturaren historian lehenengo aldiz, prosa arin, erritmiko eta, hein handi batean, musikal bihurtuko duena. *Gero* liburua harilkatuko duena. Axularren prosa.





## ESTUDIOS ALAVESSES

Rufino LÓPEZ DE ALDA FLORES, Una portada oculta (Pág. 123).

Fernando R. BARTOLOMÉ GARCÍA, La transcendencia del pintorador Diego Pérez y Cisneros en la policromía alavesa de principios del siglo XVII. (Pag. 137).

César GONZÁLEZ MÍNGUEZ, Vertebración institucional de Álava a fines de la Edad Media (Pág. 149).

Javier BURRIEZA SÁNCHEZ, Vitoria en la vida de un intelectual vallisoletano. La relación existente entre el catedrático de Psicología Antolín Burrieza Bratos y Vitoria. (Pág. 169).

